


GOIERRITARRA

124 p.k. Ordizia —Goierriko Aldizkaria— dohain banatzen da

GOIERRITARRA HILABETEKARIA.

30. zenbakia.

93ko urtarrila.



B M
a o
s d
e r
r n
i o
t z
e
a n

- ♦— ATAUNGO SANTAGEDA KANTA OSPETSUAK: ANTIGUALEKO GABON ETA SANTAGEDA ESKEKO 120 KOPLA EDER EZEZAGUN ERDIKO SEPARATAN.
- ♦— GOIERRIKO NEKAZAL TURISMO SAREA ZABALTZEN ETA NEKAZAL IKASTAROAK AURRERA: BASERRIA DIRUBIDEAN?
- ♦— JOXE MIGEL AZURMENDI BEASAINDARRA: 14 URTE PRESO. LUTXI ZALDUA ORDIZIARRA, URTEETAN UMEAK MUNDURATZEN LAGUNTZEN. AITOR GARMENDIA, GOIERRIKO TXIRRINDULARI ONENARI INTERBIUBA
- ♦— I.G.P.-A (N.I.P. DELAKOA) ESPERIENTZIA BERRIZALEA IDIAZABALEN. GOROSAGASTIKO KRIMENA (ETA II). GOIERRIKO ZERBITZUAK (I). ZIENTZIA-IZKUTUAK / PARAPSIKOLOGIA. OHIZKO SAILAK ETA BERRI BERRIAK ORRI GEHIAGOTAN: 36.

URTE BERRI ON IRAKURLEOK!

Irakurleari:



Goierriko hurrengo Udalak, gutxi/asko, euskara, kultura, informazioa eta GOIERRITARRAren alde aritu dira 3 urtetan, gutxien-gutxieneko diruz lagundu dute gurea:

- | | |
|------------------------|----------------------|
| * Aramako Udala | * Lazkaoko Udala |
| * Altzagako Udala | * Legorretako Udala |
| * Beasaingo Udala | * Olaberriako Udala |
| * Ezkio-Itsasoko Udala | * Ordiziako Udala |
| * Gabiriako Udala | * Ormaiztegiko Udala |
| * Gaintzako Udala | * Zaldibiako Udala |
| * Idiazabalgo Udala | * Zeraingo Udala |
| * Itsasondoko Udala | |

Egia da gainontzeko Udal gehienek ere (Ataun, Segura, Zegama), agindu dutela, hiru urte eta gero, sartuko direla GOIERRITARRAren Aldi Berrian (Tirada haundiagoko hamabostekaria, langile kontratudunekin, herrietako berriekin, premiazko milioietako aurrekontuekin, Udalen partehartzearekin, e.a.). Bienbitartean, Goierriko udalek eskatu ziguten Proiektua idatzi eta entregatu dugu, baina gauzen egoera geldiu batean dago, politikoen konponezinengatik (?) edo. Hiru urte eta piku daramatzagu lanean eta zai, eman eta eman, baldintza eskasetan baina makineria prest. Zergatik ez da konpontzen GOIERRITARRAren arazotxo osoa? Onartuko al dira aurkeztutako eskakizunok?

Euskal prentsa lokalari lekua egin diogu. Diru-prolemak egon dira tartean eta gehiago dagoenean aldizkari hobea egingo da. Izugarri estimatuko genuke GOIERRITARRAren Aldi Berria berehala gauzatu eta estrinatuko bagenu. Leiho berri gehiago irekitzeko irrikitan gaude Goierriko, goierritar eta kanpotar irakurle horren mesedetan.

Guk langile gehiago behar ditugu aldamenean, kondiziotan aritu, eskualdeko jende-mota oso ezberdinentzat egiten dugu hilabetekaria, hamabostekaria dugu beharretako, e.a., e.a.

Euskaltzaleek esan dute eta Goierri berak ere esan du dagoeneko: behar duela GOIERRITARRA berri eta sendotuaren aldia.

Zeren, "Euskararik gabe ez da etxerik jasoko; ez da hemen gizarterik osatuko; Euskal Herria ez da bizitzeko leku on bat izango"

(Bernardo Atxaga)

"Hemen euskaraz ez dakienak berak jakingo du zergatik ez dakien. Baina hemen euskaraz ez dakienak ez digu uzten euskaraz egiten. Baina eta hemen euskaraz jakin arren euskaraz mintzatzen ez denak ere ez digu uzten euskaraz egiten"

(Bitoriano Gandiaga)

Erredakzioak

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Goierrialdeko Aldizkaria

30. zenbakia. 93.eko urtarrila. Debaldeko alea. Tirada: 2.700 ale. 2.200 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak Kultur Elkarte". Dorre- etxea, 1. pisua (Correos-gainean). Tfna: 889612. 124 posta kutxa Ordizia.

Aldizkari honek Goierriko Udal askoren dirulaguntza jaso izan du.

Erredakzioa: Jon Mikel Arano, Mikel Albisu.

Erredakzio Batzordea: Tere Irastorza, Andoni Sarriegi, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Rosa Amundarain eta Jesus M. Munduate.

Azaleko argazkia: Gema M. Arrugaita.

Ale honetako kolaboratzaileak: Dionisio Amundarain, Mikel Aramendi, Xabier Gartzia, "Maizpi", Joseina Etxeberria, Koldo Zubeldia, Bixente Barandiaran, Jone Arin, Josune Arruabarrena, Andoni Eskisabel, Garbiñe eta Elisabet Ezkurdia, Rufino Iraola, Antonio Irastorza, Jon Etxaide, Garbiñe Balerdi.

Gure eskerronak: Gure "sponsorrei": publizitatea ematen diguten guztiei. Ampo, Eroski eta Orkli kooperatibei, Goierriko Udal Ordezkariei, "Antza"ri



eta "Egunkaria"ri. Era batera edo bestera lagundu nahi liguketenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartu nahi duzuenoi.

Fotokonposaketa, maketazioa eta inprimaketa: ANtza, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)


ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik.

Zein da aldizkari irakurriena Goierrin? Zure publizitatea 2.500 txokotara iristea nahi baduzu, dei egiguzu. Izena emango dizu GOIERRITARRAn iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa
Dei 889612 telefonora.

Idea jatorrenek ere bultzada behar izaten dute.
Udal arduradunek lagundu behar diote
GOIERRITARRAri



GOIERRITARRA

Tfnoa: 88 96 12

1992ko publizitate-prezioak:

Behin):

Modulo bat.....4.000 pzta.
Bi modulo8.000 pzta.
Orrialde erdia.....20.000 pzta.
Orrialde osoa.....40.000 pzta

ratzen ditugunez, 5 edo 10 zenbakitan beren publizitatea egin nahi dutenek hurrengo deskontua izango dute:

Modulo bat.....3.500 pzta.
Bi modulo7.000 pzta.
Orrialde erdia.....17.500 pzta.
Orrialde osoa.....35.000 pzta.

Prezio hauek zenbaki baterako balioko dute. Urtean 10 zenbaki argita-



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

GOIERRITARRA Etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen-Deiturak:

Helbidea:

Herria.....Tlf.....

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali.

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER

Goierriko Zerbitzuak (I)

* Eskualde Mailako Gizarte Zerbitzuak

Aingeru Zaindariaren Aterpetxea, Seguran, 801010 tfnoa. Foru Diputazioaren gazteen babespen eta zaintze zerbitzua. 6tik 16 urte bitarteko heldugabeei aterpea eskaintzea du helburu.

Emakumeen Babes Etxea, Beasainen, 885900 tfnoa. Mota ezberdinetako bortxapean dauden emakume eta beren seme-alabak denbora jakin batean bertan hartzea, Idiazabal, Arama, Altzaga, Gaintza, Itsasondo, Beasain, Ordizia, Olaberria, Ataun, Ormaiztegi, Gabiria eta Zaldibiako Udalen babespean. Gizarte-lantuzkailarengana jo.

Senekotasun Zentrua, Beasainen, J.M. Iturrioz kalea (matadero-ohiaren parean), 886762 tfnoa. Haur zein helduentzako laguntza psikiatrikoa, drogomenpekotasuna eta alkoholzale-tasuna, Osakidetzaren zentrua. Ordua eskatu ondoren eta dagokion medikuak luzatutako P.10 bolantearekin.

Antiguako Amabirjina Eskualde Ospitala, Zumarragan, Argixao, z/g, 723901 tfnoa. Osakidetzaren menpekotasunean, Seguritate Sozialeko medikuntza-ebakuntza, espezialitate guztiak eta larrialdiak ditu zerbitzu.

Ama-Haur Zentrua, Ordizian, Etxezarreta Kalea, z/g, 881165 tfnoa. Zerbitzuak: sexualitate eta antisorgailuei buruzko informazioa, ginekologia sendagintza, gazteentzako programa; haugaltze-eskaerak bideratzea; emakumeei sortutako arazo guztiak konpontzea.

Gurutze Gorria, Beasainen, Nafarroa Etorb., z/g, 882881 tfnoa. Laguntza ematea istripuetan, gizarte-ongintza alorreko ekintzetan parte hartu eta hauek bultzatu. Herri Asan-

bladaren menpe. Zerbitzuetan: gaisoen garrioa eta lehen sorospinak, sorospin eskola, giza-medikuntza kanpainak, astialdiko ekintzak.

INEM, Ordizian, D.Unanue Plazan, 880548 tfnoa. Enplegu-bila dabiltenen izenak eta erregistroa, kontratu-erei buruzko informazioa eta aholkularitza, heziketa-ikastaroak langabetuentzako.

Enplegu eta heziketa teknikoa, Ordizian,



Granja-aldea, z/g, 889200 tfnoa. Dituen helburuak: lan-merkatuaren eskaintza eta eskararen arteko oreka lortzeko heziketa-beharrak somatzea, berziklaia eta denbora libreko ekintzen bidez; enplegurako hezi. Goierri eskualdeko ikastaroei buruzko informazioa.

Drogomenpekotasunen prebentzio eta informazio zerbitzua, Ordizian, K. Nagusia, 24, 888250 tfnoa. Zerbitzuak: Drogomenpekotasunen inguruko informazioa, aholkularitza eta orientabideak. Proposamenak jasotzea. Prebentzio programak, heziketa arloan.

Zerraila. Sexu informazio eta orientabide zerbitzu dohainekoa. Ordizia, Beasain, Lazkao, Altzaga, Ataun, Olaberria, Zaldibia eta

Itsasondoko Udalen babespean. Gizabanako mailako aholkularitza, sexu-terapia, norbana-koa zein taldekoa, hitzaldiak, heziketarako materialen sortzea, sexu-jarrerei buruzko ikerketak, e.a. Herrietan kontsulta pasatzen dute. Ordiziako egoitza: tfna.: 881165.

“Gureak” Lantegi Babestuak, Itsasondon, Kale Nagusia, z/g, 880057 tfnoa. Adimen urrikoen lan-sustapena bultzatzea dute lantegiok helburu, Diputazioarekin batera.

Aspace, Beasainen, Igartza-Oleta, z/g. Elbarri zerebralen Guraso Elkartearen menpe dago zerbitzu hau. Berarizko heziketa eta 16 urte bitarteko elbarri zerebralen bergizarteratzea ditu xedetat. Jangela eta garraioa eskaintzen ditu.

Enplegurako Zentru Berezia, (A.G.P.M.), Lazkao Ibahe Industri-Poligonoan, 888015 tfnoa. Gipuzkoako Ezinduen aldeko Elkartearen mende dago eta Goierriko ezinduen lan alorreko babespena eskeintzen du.

Gautena, Beasainen, Igartza Oleta, z/g, 880687 tfnoa. Komunikazio eta portaerako arazo larriak dituzten pertsonen laguntza ematea. Zerbitzuak: umeen ernaraztea, familiar-terapia, koterapia eta eskola-programaketa.

Lanbide bat ikasteko lantegiak, Goierri Lanbide Eskolan, 880062 tfnoa. Eskolarik gabeko gazte-jende langabetuari ofizio-jakin bat irakastea du helburutzat. Zerbitzuetan, linter-neritza, igeltseritza, lorazantza eta sukaldaritza. Onuradunak 16-19 urte bitarteko gazteak lirateke.

(jarraituko da)



Zure Argazki

Urdaneta 18 • Tel. 889325 • 20240 ORDIZIA

Ostatua

ZERAIN

Tf. 80 17 99

JAUREGI TOLDOAK s/l

Telefonoak: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN



SOLOZABAL
AUTOESKOLA

PERMISO GUZTIAK!

- Motorra
- Autoa
- Kamioia

- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etxezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 - ORDIZIA

Lana

17 urteko neska umezantza eta etxekolanetarako prest asteburutan. 886477 tfnoa. Beasain.

Salerosketak

Badakizu zein den Goierriko "Diane"-rik koloretsuena? Ba, salgai dago kotxea. 882759 tfnoa. Ordizia.

"Argia" astekariaren (89.-90.eta-ko) 1269.a, 1279.a, 1284.a falta zaizkigu. Eta "Zeruko Argia"ren (80.eko) 868.etik 878.a arte, 881.a, 895.a, 896.a, 897.a. (79.eko) 838.a, 846.a. (78.eko) 802.a, 806.a, 810.a. (77.eko) 742.a. Eta (76.eko) 714.a. Zure laguntzarekin, bilduma berandu baino lehen lortuko dugulakoan gaude. Eskisabel Sukia Sendia. Urdaneta K., 19. Ordizia.

"Motoreta" BMX bizikleta salgai. 884672 tfnoa.

Sukaldeko egurrezko berogailua salgai. 40 zm.takoa, egoera onean, 25.000 pza. 801444-ra dei.

Behi suitzar bat erosiko nuke. 882981 tfnoa.

Mendiko "Ossa" motorra salgai. Salneurriaz hitz egingo dugu. Dei 13etatik 14etara edo 20etatik 21etara, 883255ra.

Etxebizitzak

50 m2ko pisua salgai, berritua. Salneurriaz hitz egin genezake. 885187 tfnoa.

80 m2ko lokala alokatzen da, biltegi, denda, e.a.-etarako, "Lancia"ren azpian. Tel.: 884768.

Castillo de Jaca (Candanchutik 20 km.tara) bi etxebizitza alokatzen dira, abendutik maiatzea bitartean. Sei eta zortzi ohe dituzte. Interesdunek dei iluntzeko 8etatik aurrera, 974. 360377ra.

Agurak

"Jaunak:
Amar mandamentuak
banatzen ditut bitan:
Zirkulu eta Batzokin.
Nora joanik ez daukanak
dabillega al dun tokin!"

"Kristotxiki"

Aurtengoa denoi
Latza egin zaigu
Lantegi ta kultura
Diruak katibu
Halere umorea
Ez dezagun galdu
Datorrena hobe
Opa dizuegu

"Maskarada"

Segurako Udalak antolatuta, Fandango (Orripeko) eta Ariñ-ariñ VIII Txistu Musika Lehiaketa

1.- Konposizioan, ohizko txistu familiarik tresnak erabiliko dira, hau da: 2 txistu (fa sostenituan), Silbotea (si naturalean), Danbolina eta danborra "ad libitum" utziko dira.

2.- Irabazle gertatzen diren Orripeko eta Ariñ-ariñak 93ko ekainean Seguran izango den Euskadiko Dantza Txapelketan joko dira.

3.- Konposatzaile bakoitzak, Orripekoak, Ariñ-ariñak edo bietatik aurkez ditzake (nahi duen hainbeste). Orripeko eta Ariñ-ariñ irabazleak, autore batenak edo bidernak izan litezke.

4.- Lanak argitara gabeak eta publikoan jo gabeak izan beharko dute.

5.- Balorazioarako erabiliko diren kriterioak, hauek izango dira: Dantzarako egokitasuna (kontuan izan, Dantza Txapelketan jo behar direla). Doinuen aberastasuna eta edertasuna. Armonizapena. Doinuaren esaldiak 8 (errepikatuta) edo 16 konpasetakoak beharko lirarteke (Dantza Txapelketan

6 16ko jotzen dira). Ez da onartuko neurri herrikoirik.

6.- 2 sari izango dira: bata Orripekoarentzat eta Ariñ-ariñarentzat bestea. Bakoitza 35.000 pezetakoa.

7.- Aurkezten diren lanen jabe Segurako Udala geldituko da, egokiena iruditzen zaiona egiteko.

8.- Epaimahaian, Udaletxeko arduradun bat eta musika eta dantza mundutan jakitunak izango dira.

9.- Irabazleei sariak 93ko ekaineko Dantza Txapelketan emango zaizkie.

10.- Lanak 93ko urtarrilaren 31rako Segurako Udaletxera bidali behar dira. Ez dute egilearen izenik eraman behar, izenburua bakarrik baizik. Aparteko zorrotxo itxi batean jarriko dira izenburu horri dagokion izena eta zuzenbidea.



GABONETAKO KULTUR EKINTZAK LAZKAON

Urtarrilak 4: Arratsaldeko 7retan, Prailetan, Beasaingo akordeoilarien saioa. Egitaraua: "Iphigenie in aulis", "Amodiozko kontzertua oboerentzako", "Hallelujah Chorus", "Heimatbilder", "Pilgerchor" eta "El tambor de granaderos". Zuzendaria: Iñaki Aierbe.


Urtarrilak 5: Erregeen Kabalgata. Irteera Agerre baserrian, 7,30etan.

Urtarrilak 10: "Astotxo Eguna". Eguerdiko ordubatean, ihesaren errepresentazioa, herrian zehar, "Zawopi" taldearen eskutik.

Urtarrilak 30: Gaueko 10,30etan, Areria Zineman, "Atzo zure emazte ohiarekin egon nintzen..." obraren antzezlan, "Bederen I" antzerki taldearen eskutik. Bere ideia: Zer dugu amodio erlazioen inguruan? Nola ligatzen dugu? Informazio nahikoa badugu? Nola ikusten gaituzte europarrak? "Atzo zure..." ikuskizunaren gaia hauxe dugu. Komedia herrikoia, humore zuzena gaur egungo prolema bat ikutzeko, gure eszenalekutan kasik ikusi ez dena.

A ze flaxa!

Deslucido a Xlax



Negu gorria ordiziar rugbylariak

Zaborren artean, zaborra ikusten baduzu, ez zaitu harrituko, baina zabor artean primerako artelan bat ikusiz gero, edonor ahozabalka geratuko da. Ordiziako rugby zelaia bezalako paraje kaxkarrera, inguruko udal eta erakundeen laguntza bereziari esker, hurbiltzen bazara, erabat harrituta geldituko zara han eginiko lan finarekin.

Edonork aldagela kaxkar horietako atek txikitu egingo lituzke besterik gabe,

ate osoak beren lekutik kendu, horma eta egur zati batzuk, sinadura moduan utzi ordez. Lan fina izan da dudarik gabe, kirolerako gauzak gordetzen zituzten kaxak, zulo txiki batzuk egitea barruan zer dagoen ikusteko. Lan fina izan da, kontutan izanik, zelaia, N-1 bide nagusia, San Bartolome auzorako bidea eta Goardia Zibilaren etxetik hain gertu izanik, inork ez ikusi izana.

Pentsatzekoa da, hau dena azaroaren

20an gertatu izana, kasualitate hutsa izan dela. Nolanahi ere, argi erakutsi dute gure gaueko langileek atek botatzen duten trebezia, edonor ez da gauza hain dotore egiteko. Laburbilduz, argitu nahi dugu, rugby zelaiko atek txikitzea eta barruan sartzea, hitz gehiago behar ez duen babokeria izan dela eta herri honetan errotuta dagoen inori ez diola lorik kenduko.

Ordizia Rugby Elkarteko Zuzendaritza


Kolaborazioa

Ordiziako zubiak

Herrietako kondaira, bertan izan diren guda edo gertaera haundiez osatzen da sarri, baina beste mota bateko historia ere indarra hartzen ari dela esango nuke, behar bada gizakiak mendez mende eraman duen bizi moduaren azterketaz osatua, eta honen barruan, garrantzia du zer motetako eraikuntzak egin diren garai ezberdinetan. Honela jakin ahal dezakegu gure arbasoek nolatan egiten zuten lan eta nola bizi ziren.

Ordizian, garai ezberdinetako eraikuntza bereziak dagoz eta hauen artean batzuen bitxikeria aipatu nahi nuke hemen. Gudarien Etorbidetik Industrialderako tartean, lau zubi mota nabarmen, bata bestearen alboan ikus daitezkegu, eta bakoitza eraikuntza mota baten adierazgarri. Etorbidea bera, harlangaitz edo manposterio deritzaion motako arkuz osatua dago. Aldamenean, RENFEko zubi, benetan

ikusgarria, harri landuz osatua eta okerka ipinia, harriak zeharka labratuaz, haragin lan meritu haundikoa. Gero dator Ordiziako lehen barianterako zubi, hau ere arkuz osatua, baina kasu honetan arkuak hormigoi armatuz eginak eta azkenik, autobidearen zubi, aurrez eginiko habe edo biga prefabrikatuz osatua, gaur egungo eraikuntzaren adibide. Esan liteke zubigintzaren museo bat dugula begi bistan, Ordiziako erdigunean kokatua dagoena. Itsasondoko mugaldean ere badagoz beste hiru zubi eta horietako bat, zaharra, oso zubi polita izanik, konponketatxo bat gustora hartuko lukeena. Lastima muestrarioa osatzen zuen burdinezkoa kendu berria duela




RENFEk, mantendu lan gutxiagoko hormigoizkoaren batengatik ordezkatuz. Eskerrak burdinezkoen eredu ederra geratzen zagula Ormaiztegin, esaten zenez Eiffelek proiektatua, gerratean Altsasuko milizianoek botatkoa (nafar guztiek ez ziren Requetean ibili) eta gaur egun bizirik irauten duena.

Ohitu gaitezen aro desberdinetako eraikuntzak begirunez ikusten. Gure historiaren zati bat dira.

“Ateari” (Zaldibia)

Irakur**Egunkaria**

Besteek esana




Euskara mahai-inguruan

“Oraindik biztanlegoaren zati handi batek ez du ezagutzen euskara. Gehiengo horretan zati handi bat dago herri hau berreuskaldundu nahi duena, baina ez bere buruarekiko, baizik eta ondorengokiko, euren ezagutze helburuari uko egin diotelako edo etsita daudelako. Beste kezka erabilerarena izango litzateke. Ez da gertatzen, agian lehen bezala, jendeak ez duela lotsagatik erabiltzen. Dakiena harro dago, baina ez da erabiltzen errazkeriagatik, bere eguneroko komunikazio eta bizitzarako errazagoa egiten zaio gaztelaria erabiltzea euskara baino.

Gero, behar bada esperantza jarri dugula gure herriaren berreuskalduntzean idealismo gehiegirekin, militantismo ikuspuntu batetik, pentsatuz bakar batzuen berotasunaz gizarte guztiak erreakzioa zezakeela, eta behar bada, gaur egun daukagun etsipen giroa horretan egon daiteke; ameskeria izan zela gure lehen momentuko iharduna, eta ez dugula pazientziarik izan hizkuntza batek berreskuratzeko behar duen maratoia korritzeko”

Joxe Mari Zeberio ataundarrak (HPIN-Euskara Gizarteratzeko arduraduna) “Argia”ren urtekarian.



Eskualde garapenerako baliagarri Fundazioa

“Plan Estrategikoaren Beasaingo aurkezpeneko momentuan gelditu zen agerian Beasaingo Gorporazioko, dei geniezaiokeen, desoreka; Ordiziakoaren aldean nabarmena da, konposaketa berdintsua badu ere. Zentzu honetan, Diputazioan suertatzen den panoramaren antzekoan gaude, gobernu taldea gutxiengoan EA, EUE eta HBren aurrean. (...) Fundazioa berbera da eta harro nago politika kontinuitate aurrera eramateagatik. Erakundeak zartadurarik gabe aurrera egiteko adineko prestigioa badu, sortzen diren edota sortu litezkeen eztabaiden gainetik. (...) Bi alternatiba planteatzen dira: Fundazioaren estatutuak erremodelatu alderdien presentzia areagotzeko edota garapen agentzia berri bat sortu. Nere ustez ezin dugu bikoizkeriarik sortu baizik eta indarrak bildu. Nere iritziz, eskualdearen garapenerako tresna baliagarria da Fundazioa, errealitateak eta giza oinarriak hori diote”.

Inazio Estensoro, GHEko presidentea, “D.V.”-n, 92-XII-2.

Ormaiztegiko kontu zaharrak

“Halakoxe moduz makina bat aldiz jardunak dira Joxe Domingo Iurrita “Danborroa”, Katalina eta Kontxa ahizpak, Patxiko Elortza, panaderiko Kaxilde eta Ezkurdianeko Ramon. Seiak ere sasoi eder askoa dute oraindiko eta mingainean herdoilik batere ez. Aurreko asteazkenean, San Andresen ataritan, heakin berrikerian egoteko parada eta ditxa izan genuen Ormaiztegiko Kultur Etxean. Ez zitzaizgun joan izana damutu.

Herriko festetan askotan zer antolatu asmatu ezinda dabiltzanek badute non ikasia: herriko zaharrei kontu zaharrak eskatu. Han entzun nituen kontu zahar polittak hurrengorako utzi beste erremediorik ez dut. Nolanahi ere, eta zertxobait adibide gisa azaltze aldera, horra bat. Eskolatik galdegin nionean, egundoko azkarrena Katalinak egin zidan laburpen kategorikoa: “Orduko eskola zer, esaten didazu...? Lehendabizi egurre, eta gero... palo!”.

“Bizargorri” (JM.Mendizabal), “D.V.-Gure artean”, 92-XII-2.

KOIOTE TABERNA

Taberna berria eta Giro berria

Zaldizurreta kalea
Tel. 16 07 23 BEASAIN



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:
Lazkao: 88 72 99
Beasain: 88 18 96
GIPUZKOA

Ba al dakizu...?

GIZARTEA

✱ N-laren bikoizketa aurreratzea ontzat jo izan da orohar Goierrin. Etxegaraten zenbait obra egiten hastekotan dira. Ez da ahaztu behar ordea Urbina-Maltzagak lehentasuna izaten segitzen duela.

✱ Erantzun eskasa Tolosan eta Goierrin bultzatutako alfabetatze kanpainari. Badi-rudi euskaldun zahar gehienek nahikoa dutela euskaraz hitz egitearekin. Ez Beasainen ez Ordizian ez da lortu talde bat osatzerik ere. Ordizian 5 lagunek eman zuten izena eta Beasainen 7k. Beasaingo Euskara Batzordeko Jon Gorrotxategiren ustetan, "Kanpaina honen porrota ikusi ondoren, hurrengoan Udal askoren artean antolatutako kanpainetan sartu aurretik gure herriaren errealitatearekin bat datozen ikusi beharko dugu".

✱ Salaketa: Ordizia eta Beasainen arteko errepideko 2. tunela zulatu berri da. Ez daude oso ondo ordea 1. tunel barruko kamino bazterrak. Motozale eta txirinduzaleek bakarrik dakite zein arriskutan dabilzen hortik.

✱ Krisia gora eta krisia behera. Krisia? Zein krisi? Krisiaren neura interesatua zabaldu dela diote batzuk. Joxe Mari "Txato" Agirre ataundarrak "D.V."ri eginiko adierazpenen arabera, "Herria ez da jabetu zein hondoa den krisia".

✱ Segurako "inutillek" afaria egin zuten azaroaren bukaeran Mutikoako Ostatuan. Inutilen zerrendak jarri ziren izen-emateko. Kaleratutako idatzia zioenez, "hankaoker, besamotz, itsu, gor, kardiako, burutik jotako eta antzekoentzat bakarrik" zen afaria. Gaurko gazteak intsumiso izateagatik harro badaude, ez daude gutxiago soldaduskatik libratutakoak beren inutilitateaz.

✱ Ataun batean 900 kilo janaritan; Segura, Mutiloa eta Zerainen tona batetik gora eta Goierriko hainbat herritan diru, arropa eta janaritan ondasunak bildu dira gerra-epan dauden herrialdeen alde. Honela erantzun zaio Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak egindako deiari. Elkartasuna bada oraindik.

✱ Elkartasunarekin segiz. Iritsi dira Balkaniarrak, bosnioak Ordiziara. 19 lagun gure artean egongo dira, gerratik urrun. Udalak "Apellaniz" lantegiaren zati bat egokitu du hauei teilapea emateko.

✱ Bestalde, herri honetako Gizarte Ongizate sailak nazioarteko kooperaziorako proposamena elaboratu du. Lau milioitik gorako dirulaguntza emango zaie "Hirugarren Munduaren" alde lan egiten duten zenbait erakundeei. Ohizko Ipar-Hegoa Kooperazio egitasmoaren barruan guzti hori.

✱ Beasaingo Udal Aldizkaria zertan izango den azaldu zuen Jon Jauregik aurreko hilean. Gai nabarmen bat izango du beti eta bai eta batzordeetako informazioa. 3tatik 2 euskaraz izango omen da.

✱ Beasaingo Parrokiak gizarte erabilerarako etxe baten proiektua aurkeztuko luke. Herriko 900 mutikoen eskaera aseztera etorriko litzateke, eta ratifikazio ofizialik ez bada ere, 54 milioietako aurrekontua izango luke. "Seroretzea" errestauratu beharko litzateke horretarako.

✱ Expo-an izan eta gero, Beasaingo odolkia bultzatzekotan dabilta produktu honen Kofradikideak. Emakumezkoak ere izango omen dute kabadarik.

✱ Inguruko herrietatik dator notizia: Urretxu-Zumarraga, bi herrietako euskaltzaleak bildu nahi dituen taldea eratu da. Euskaldunon topagune zabalean bilakatu nahi du talde apartidista honek. Gure Goierrin ere badago premiarik...

✱ Abenduaren haseran, astearte arrats batez, bakoitzak 60ren bat lagun osatzen zuten 2 talde bildu ziren aurrez aurre Ataun S.Martingo plazan. Bi kontzentraziook talde desberdinek deitu zituzten, "Gestoa" bata eta "Gestorek" bestea, suposa daitekeenez.

✱ Orain arte "Gestorak" eta "Senideak"-en kontzentrazioak ikusi izan dira Lazkaon. Bertako "Gesto"ak bereak iragarri ditu berriki.

✱ Bestalde, Ataungo Udaletxeak paretan eginda dauden pintadak kentzeari

egin dio. Udal inbentarioa ere egitekotan dira eta, herrian ikus daitezkeen 4 telebista kateak ondo hartzen ez direnez hainbat txokotan, bada errepikagailu bat jarri behar da kanposantu inguruan.

✱ Tutore-ikaslea ulermenean jartzeko



Jon Gorrotxategi, Beasaingo Euskara Batzordeburua (HB)

bidean Ordiziako "Oianguren" Batxilergo Institutuan. Tutoretza proiektu bat onartu dio Hezkuntza Delegazioak 92-93 ikasturterako. Aurrerantzean ikasleen arazoetan gehiago sakonduko da, irakasleen hitzetan eta ikasle horien kezken konponbidea ez da bakarrik tutoreen eskutan egongo, baizik eta irakaslego osoaren eginbeharra izango da. Norbanarekiko atentzioa eta guzti izango da.

✱ Beasaingo Alkartasuna Lizeoa berri-kuntza garrantzitsuak egiten ari da, datozen urtetan hezkuntzak jasango duen Erreformara egokitzeko. Besteak beste, informatika eta teknologia esparruak zabaldu ditu eta hizkuntza laborategi baterako lehen pausuak eman. Lehengo instalazioetan hainbat obralan burutu dira eta ordenadore eki-poa zabaldu.

ARALAR

PAPERDENDA

- Bulegoko tresneria
- Ikastolako Materialak
- Idazteko makinak
- Fotokpiak
- Koadernaketak

J.M. Barandiaran Enparantza, Tel. 88 12 40 20240 ORDIZIA

KULTURA

✳ Aurreko zenbakian agertu genuen nola ari zen "Herrialde Berdea" diskoa grabatzen "Eltzegor" taldea. Horrezaz gain, IZk, Unsainen disketxea, beste bi diska plaza-ratu berri Durangoko Azokarako: "Kinkirrinera", "Txirri, Mirri eta Txiribiton" en 8. Lp-a. Bilintx, Orixe eta Zaldubiden bertso eta doinu herrikoiekin, Ansorena eta Beasaingo Karlos Gimenez famatuen moldaketa eta egokipenekin datoz. 3. diska: "Egan Queen omenduz", Fredi Mercuryren desagerpenaren 1 urteurrenerako. "Egan" taldeak "Queen" en 10 abesti aukeratu ditu beren musika eta moldaketak errespetatuz, ingelesez omenez, bere 7. Lp honetan.

✳ Ospatu berria den Segurako San Nikolas txikia Asier Alustiza umeari izatea tokatu zaio txotx egin eta gero. --Miguel Anjel Mintegi Beasaingo idazlearen "Udazkena" eleberria (91ko Irun Hiria sariduna) argitaratu du Kutxak.

✳ Ekintza asko eta partehartze txikia Beasaingo Udazken Kulturalan. Mikel Zaldia Batzordeburuaren balantze mina hauxe da: ikuskizunetara jende exkaxegi bildu da (300 lagun ere ez), ez informazio faltagatik ("Laister" buletina hor dago, bere kostua du) ez eta sarreraren garestitasunagatik (300 pzta.), ez aktibitateen aukeraketan huts egiteagatik ez eta anitasun eza-gatik. Baina zerbaitek huts egiten du Beasainen. Kultur ekintzetarako herriko motibazio eza aipatu zuen. Bost milioietako aurrekontua zuen, dena gastatu ez bada ere.


Guzti honek 93eko aurrekontuak egitera-koan bere pisua izango duela dago Zaldia.

✳ Beasaingo "Goiztiri AEK" k Euskal Liburuaren Azoka eduki du zabalik azaroaren bukaera alderarte eta baita sukaldaritza ikastaroa antolatu, euskara hutsean. 26 lagun euskaldun berri eta zahar biltzen dira astean hiru egunez, plater artean euskaraz bizitzeko. Helduak euskaraz idaztera bultzatu asmoz, berriz, 2. txiste-idatzien txapelketa ere antolatu du AEK- k.

✳ Abenduaren 11tik 23ra arte egon da zabalik Marisol Legorburu artista ordiziarren obren erakusketa bere herriko Barreran. Kurrikulum luzea du dagoeneko Marisolek.

✳ Porteriako "Aterpe" n dauzka zintzilik urtarilak 7 arte bere argazki artistikoenak (ez-komertzialak) "Fotoetxe" ko nagusia den Joxemari Telleria idiazabalarrak.


✳ Gipuzkoako XIII Akordeoi Lehiaketako txapelaren eramaile suertatu da Arrasaten Ordiziako Aitor Furundarena. Klingenthaleko Nazioarteko Lehiaketan bigarren egin du aurten. Gipuzkoako Diputazioaren beka-dun, Parisen daramatza azken hiru urteak, punta-puntako irakasleen aldamenen. Maria Rosario eta Garbiñe Balerdiren ikasle izan zenetik zenbait sari jaso izan ditu, ez da lehenengo saria jasotzen duena, beraz. Jakintza eta Aurtzaka dantzaldeetan, Oroith Abesbatza eta Beasaingo Musika Eskolan lagun ugari ditu Aitorrek.



Joxemari Telleria idiazabaldar argazkilaria

✳ (Emakundek komunikabideentzat antolaturikoa) jaso du Idiazabalgo Zirika Irratiak. 90. ren bukaeran eman zuen lehen pausua idiazabaldar koadrila batek eta hiru urte hauetan ez dute etenik egin. Astean behin bildu eta larunbatero bi orduko saioa eskeintzen diote herri horri. Lehen saria ezustean jaso bazuten ere, 2.a eta 3.a emakumearen alde egindako lanaren ondorioa da, diotenez. Aurrera bada herri-zirika-tzaileak!

✳ Anastasio Albisu apaiz eta idazleak omenaldia jaso zuen Azpeitiko Antzerki Topaketen barruan. Lazkaotarra da jaiotzez Albisu, azken 49 urteak Azkoitian eman baditu ere apaiz lanetan. Bere bizitzan zehar 17 antzezlan, bi nobela eta ipuiliburu bat idatzi izan ditu, zenbait itzulpen eta bertso ere egin dituelarik. Euskarazko antzerkiaren alde egin duen lan oparoa eskertu nahi izan zaio.



asteroko
ARGIA

ARGIA: Industrialdea 1-2. Lasarte-Oria 20160.
Telefona: 943-371545 / Faxe: 943-361048

ARGIAREN HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT (astekaria eta urtekaria)

IZEN DEITURAK

HELBIDEA

TELEFONOA

HERRIA

PROBINTZIA

BANKU edo AURREZKI KUTXA

SUKURTSALA

KONTU KORRONTEAREN Zka.

SINADURA

Harpidetza Sariak: Hego Euskal Herria: 9.750 pzta. / Ipar Euskal Herria: 640 libera.
/ Estatu espainiarra: 9.750 pzta. / Beste atzerriak: 12.800 pzta. / Airez: 20.200 pzta.

UDAL ERABAKIETAN HERRITARREN PARTE-HARTZEA DELA ETA “I.G.P.”a: Esperientzia berrizalea Idiazabalen

Aspalditxoko kontua bada ere, irakurleak gogoan izango du, beharbada, Idiazabalen joan zen uztailan saio berrizale bat egin zutela herritarren eskuhartzearen inguruan. Futbol-zelai berria non egin zela eta, “Interbentzio-Gune Partehartzaileak” (IGP) delako programa bat aplikatu zen; herritar-multzo bat zozketa-bidez aukeratu eta udal-erabakia bere esku jartzean datza aipatu metodoaren funtsa.

Ondoko lerrootan doanaren asmoa, esperientzia berriaz egindako burutazio batzuk plazaratzea da. Uste dut interesgarria dela gaia eta, Idiazabalgoentzat ez ezik, beste edonorentzat ere badagoela zer aztertu eta ikasia.

Hasteko, bota dezadan, saioaren zertarakoaz esandako zenbait gauzak, gaizki ulertuak besterik ez dituztela ekarri; izan ere, jende askok pentsatu baitu egunkaria irakurrita, herritarrek udal-erabakietan zuzen eta zabalago parte hartzea zela helburua. Alkateak, konparazio batera, esan du, jendeak ez duela parte hartu ohi, baina IGP bidez, “herritarrek esku har dezaten metodoa aurkitu dugu”; programaren eragileak ere ildo berean aritu dira, adieraziz, gaur egungo demokrazi sistemak ez duela herritarren eskuhartzea ahalbidetzen; IGPak, aldiz, bai.

Ez nator bat ikuspegi horiekin. Idiazabalgo herriak ez du, ekimen hau dela eta, “zabalago eta gehiago parte hartu”; nere ustez, jende gehienak ez du arrastorik ere zer egin den. Areago, badira kontzejalak, oso garbi ez dutenak IGPak hartutako erabakiak, Udala bera ere lotzen duela; herritar askok, berriz, ez daki zein leku aukeratu den futbol-zelaia egiteko. Esku hartu, beraz, 25 lagunek, lurren jabeek eta udalkideek esku hartu dute. Baina horretarako ez zen IGPrak behar.

Nere ustez, emaitza eskas hau esplikatzeke garaian, bi eratako zergatiak tartekatzen dira; proiektuaren nolakotasunetik datoz batzuk, Udalak herritarren eskuhartzeari buruz duen ikuspegitik beste batzuk.

Istilu guztiak berez kaltegarri?

Proiektuaren arabera, “istilurik ez izatea” eta “demokrazi sistema hobetzea” pareko gauzak dira. Nere iritzian, ez da nahitaez horrela; bapo bizi den gizarte batek (eta/edo beraren barruan ondoen bizi diren sektoreek) horrelakoak pentsatzea ez da harrizkoa, ga-

tazkarik txikienak ere ezinezona ekar baitiezaieke eta, hortaz, zenbait egoera koloka jarri. Honaino etorrita, komeni da jakitea, esperientzia hau Alemaniatic zeharrraldatu dela, gizarte oso aberats batetik, alegia.

Aipatu ikuspegitik jokatz, gatazkarik ez gertatzeko, “teknikariak” edo “politikari profesionalek” berebiziko pisua dute; alderdi politiko eta herri-erakundeak, jendea arazoak konpontzeko leudeke, soilik. IGParen izaerak badu zerikusia pentsakera honekin, nik uste. Eragileek esan dutenez, “jende guztiak ez du erreferendum batetan galdetzen denaz berri zehatza izaten eta ez da beharrezkoa guztiak parte hartzea; aski da herritarren artean hartutako multzo adierazgarri bat”. Garbi dago, helburua ez dela herritarren eskuhartze zabalagoa lortzea, behintzat.

Egia da gatazka batzuren ondorio ia bakarra sesioa eta ezin ikusia direla (hor gabiltza Lei-

tzarango horrekin gora eta behera, hasierako eztabaida-puntuak guztiz aldrebestuta), baina, aberasgarriagoa al da eztabaidarik eza? Ez ote hobe istiluetan gaizki eginetatik ikasi eta hurrengoan zuzenago aritzea? Ongi etorriak beste leku batzuetako saioak eta irakaspenak, baina ez dezagun pentsa, beste gabe aplikatu eta gurerako baliagarri direnik. Zer egin, orain, Idiazabalen, IGParen izaera ez ulertu, ez onartu duen terrenojabe batek esaten badu, berak ez duela onztat hartzen emaitza? Orduan bai istilua! Esan nahi baita, edozein proiektuk, fruitua emango badu, bertako gorabehera eta gertaeren harian etorri behar duela eta ez mirarizko zerbait bailizan aurkeztua.

Aurreraxeago joanez, beldur naiz, gainera, IGParen izaerak, lehendik ere badauden ikuspegi eta jarrerak tinkotze aldera ez ote duen egiten, hots, berrikuntza oztopatu egiten duela. Luze joango litzaidake hau aztertzea, baina ezin baztertu galderatxo bat egiteko tentazioa: modu berean erantzungo al lukete baietz (hala egin baitzuten) IGPko kideek futbol-zelaiaren beharrianaz, baldin eta “futbol-zelaiko arazoa”ren testuingurutik at, adibidez, “Idiazabalgo inbertsio-lehentasunez” galdetu izan balitzaie?

Udala eta herritarren eskuhartzea

IGParen izaera da bat eta Udalaren jokabidea bestea. Borondate ona ezin ukatu Idiazabalgo Udalarik batzordeetara herritarrek joan litezke, berri ematen zaie beren arazotxoetan... baina inork ez du interesik txikiena ere erakusten gai gehienetan. Udalak bere diagnostikoa eginez, herritarren eskuhartzea hu-



tsaren hurrengoa dela aitortu bai, baina ez da saiatu bide berriak urratzen; IGParen hau bakarrik, nahiz eta beraren itxurazko xedea, sesio handi samarrak ekarri dituzten gatazkak bideratzea izan. Ez da horrelakorik izan, ordea, Idiazabalaren.

Nik uste, era honetako irtenbideen zergatia, Udalak berak -bertako kontzejalek- istilurik ez izatea dela eta ez besterik. Etor zitekeen istilua, lurjabeen eta Udalaren artekoa zen eta herri txikiotan inori ez zaio gustatzen erabakiak "baten baten aurka" hartzea. Horrelakoak konpontzeko, teknikariei ematen zaie hitza, batzutan, IGPa antolatu, oraingoan.

Erremedioa ez baina nondik ez jo bai

Gure politika-eztabaidetan, arazo konkretuen aurrean ekintza-programak falta ditugula erakusten digu honek guztiak; nahiz eta hitz potolo asko bota elkarri, eguneroko gorabeherotan ez da aurrerapen handirik ikusten. Lehen alderdi gehienek hitz egiten zuten "herri-partizipazioaz", baina ez dut aplikazio egokirik ikusten inon. Okerrena, gainera, orain ez dutela ezertxo ere esaten; baliteke, gauzak ondo egin ez direlako, ezin direla egin pentsatzea, beste gabe.

IGP bide honetatik, lasai asko konpon dezakegu edozein gorabehera leon-kastilo egi-

nez, baldin eta, aurrez gizarteak metodoa on-tzat ematen badu; horrela eztabaidarik ez. Badi-ra, dagoeneko, gure artean elkarrekin, zuzendaritza-karguak betetzeko, txandak egiten dituztenak; irtenbidea ez litzateke txarra, jende guztia parte hartzeko irrikatzen dagoelako izango balitz. Itsuenak ere ikusten du, ordea, horrelako elkarrekin zertarako balio duten eta zer emateko gauza diren.

Azken batean, gure erakundeetan zer nahi dugun da kontua; IGPak emandako "lasaitasuna" ala eztabaidatu, gaizki eginetatik ikasi eta herritarren eskuhartzean modu berriak landu.

Antonio Berasategi
(Idiazabalgo kontzejal ohia)

Hezkuntza —


ZIENTZIA IZKUTUA / IZPIRITISMOAREN ARTEKO DESBERDINTASUNA: Giza-garapenerako profilaxiaren bidetik

Urtaro Donostian izaten diren gertaera izkutuari buruzko ihardunaldiak hasi dira. Beraz, egokia dirudi zientzia izkutuaren eta tesi izpiritualisten arteko desberdintasunak azaltzea gaztediaren giza-garapenerako neurri profilaktiko bezala.

Jakina da gizakiok gorputzaren zentzumenezko organo hartzaile jakin batzuetatik atzematen dugula kanpoko informazio guztia: ikusmena, entzumena, dastamena, e.a. Halere, **ba ote dugu ez ohizko informazio bereziak lortu ahal izateko organo hartzailerik?** Dagoeneko frogatuta dago **pertzepzio extrasensoriala** deritzon informazio bereziak ematen direla: telepatia, argikusmena (klaribidentzia) eta prekognizioa.

Bestalde, jakina da gizakion oparotasunerako, gorputza nahiz baliabide fisikoez errealtate materiala eraldatzen saiatzen gara. Halere, **ba ote daukagu mundu materialaren baitan eragiteko baliabide fisikoak ez den beste modurik?** Dagoeneko frogatuta dago, urruntasun fisikoak zein psikikoak bitarteko, materialazko errealtatearen baitan eragina izan dezakegula. **Psikokinesiaren** auzi honetan bi gertaera mota ikertu izan dira: medium edo bitartekarien lanari esker materia berria sortzen duten gertaerak (materializazioak: psikofotografia eta psikofonia) eta "at dauden" objektu zein irudien agerpenak.

Deskribatu ditugun bi ardatz horien inguruan pilatzen zaizkigun "psi" gertaera (izkutuak) beraien "izanen"tasuna denek aitortzen dute. Aitzitik, ezin ditugu esplikat, gaur egun, errealtateak ulertzeko eta menperatzeko



Luis Mari Barandiaran
(Alkartasuna Lizeoko Zuz.)

dauzkagun tresneri tekniko-zientifikoez. Gertaera izkutu hauei buruz, **parapsikologiak** barneratzen duen ikuspuntua garbia da: ez gaude gertaera naturalak ez diren gertakizun batzuen aurrean, **orainarteko zientziaren espazio eta denborazko kategoriak erlatibizatzen dituzten gertakizun natural eta arraro batzuen aurrean** baizik. Beraz, gertaera horien irakurketa psikogenesikoa, metodo eta pentsakera zientifikoz egin beharra dago. Horretarako ezagutza zientifikoak berak XIX mendeko eredu mekanizista gaingitu beharra dauka. Jakina da gaingitze lan horretan aurreratuen Fisika dela; horregatik ez da

harritzekoa, gaur egun, parapsikologiaren solaskide preziatuena Fisika izatea.

Joan den mendearen erdialdetik hona, egituraturiko erlijioa bailitza, geldiezinezko gorakadan hedatzen ari den izkutuzko gertaera hauei buruzko beste ikuspegi bat **izpiritismoaren** da. Berak dioenez, gure organo hartzaileek hauteman dezaketen errealtateetik kanpo, **hilik dauden izpirituen mundua dago**, eta bi mundu horien arteko etengabeko erlazioak ezezik, euren arteko menpekotasunezko erlazioak ere ematen dira. Horrela, izkutuzko gertaera oro izpirituen munduak gu-rearengan duen eraginaren lekukoak bezala ulertuko dira. Izpiritismoaren munduikuskera honek **giza-espirtualitatearen garapenerako izan dezakeen eragin txarra** begibistan dago. Areago, nortasun mailan azken oinarri-atalak bursutzen ari diren gaiteenganako **eragin suntsitzailea** salatu beharra dago.

Izpiritualismoaren aurka, "psi" edo izkutuzko gertaerei buruz, **parapsikologiaren ikuspegiaren aldarrikapena egiteko arrazoiak asko dira**, zeren bi gertaeren artean erlazio magikoak ezartzeko joera oso zabaldua bait dago. Esate baterako, gauza bat amestu ondoren antzeko zerbait gertatzen zaigunean, amesturikoaren edukia gertatutakoaren errealtatearekin erlazionatzeko grina sortzen zaigu. Beste batzutan (pertsonalitate depresiboaren kasuan) aurrez obsesiboki sorturiko ideia errealtatean gauzatuz gero, prekognizioa eman dela uste izaten da. Eta, azkenik, norberaren aiduru edo gogo biziak sorrarazten ditu gertaerak, zeren, psikologian jakina denez, errealtatearekiko harreman inkonszientek argi ditzazke horrelako gertakizunak.

**MAXI
EROSKI**



ORDIZIA

FOTOKONPOSAKETA

ANtza

Lasarte-Oriako Industrialdea, 1-2 Pabiloiak
Tfnoak: (943) 37 15 45 Faxe: (943) 36 54 93
37 07 38

INPRIMATEGIA

**GRAFIKAGINTZAN
AURRERA GOAZ**

14 URTE DARAMATZA KARTZELAN JOXE MIGEL AZURMENDIK

Gabonak etxetik urrun

Gabonak etxeko eta senidearteko berotasunean pasatzeko egun aproposak badira ere, Euskal Herriko hainbat lagunek ez du horrelako aukerarik izaten. Hortxe daude beraien aberriagatik burrukan aritzeagatik kartzela ilunean.

Barruan egon behar, egun asko eta asko, gazte eta ez hain gazte direnok. Goierrin ere, zoritxarrez, badiugu gisa honetako hainbat kasu. Joxe Migel Azurmendi beasaindarra dugu horietako bat. 38 urte bete berriak ditu eta 18 urte bada jada bere familiagandik urrundu zela. Azken 3 urteotan Cordobako kartzelan badago ere, 14 urtetan Espainiako beste hainbat kartzeletan egona da.

Huesca, Herrera de la Mancha, Carabanchel, Alcala, Soria, Martutene, Cordoba eta laster Lugo. Horiexek izan dira Azurmendiren azken 14 urtetako "bizilekuak". Bere herriaren alde borrokan aritzeko konpromezua hartu zuelako sartu zuten kartzelan. 58 urtetako zigorra jarri zitzaion. Hala ere, inortxok ere ez daki noiz itzuliko den. *"Madrilek bakarrik daki noiz aterako den, baina laster izango ote denaren esperantzan gaude gu"*, adierazi dute familiartekoei.

"Legezkanpoko neurri politikoa"

Denbora luze honetan, Madrileko Gobernuaren dispersio politika jasan behar izan du Joxe Migelek. *"Duela 6 urte hasitako presoan sakabanaketa, legezkanpoko neurri politikoa da, presoak suntsitzeko eta senideengandik banatzeko"*, salatu du bere anaiak. Hala ere, ziur dago dispersio honekin Madril en lortu nahi dutena ez dutela inolaz ere aurrera aterako. *"Euskal Herritik oso urrutira eramantzen dituzte presoak azken 5 urte hauetan, baina senide eta lagunok berdin-berdin joaten gatazkie bisitan"*.


Etxetik hain urruti egon beharrenden ondorioz, denbora eta diru asko gastatzen dute presoari bisitan joaten zaizkien guztiek. Oso gogorak izaten dira bidaia luze hauek, batez ere adinez aurrera doazen pertsonentzat. Gaitz erdi, presoan senitartekoei sortutako "Senideak" elkarteak eragin positiboa izan duela azpimarratu dute Azurmendi sendikoei. *"Izan ere, orain familiartekoen harremanak askoz ere hobekia baitira eta guztiok batera indar gehiago egiten dugu"*.

Cordoba, orain arteko "onena"

Azurmendiren kasuan, nahiz eta etxetik oso urruti egon, Cordobako kartzela hau omen da orain artean izan duen "onena", eta Lugon ez daki zer aurkituko duen. Beste kartzela askotan ez bezala, Cordoban nahiko lasai daude eta giza- eskubideak dextente errespetatzen dira, familikoek diotenaren arabera. Bertan, hamabostean behin, 40 minutuko bisitaldiak izateko eskubidea dute eta hilean behin, berriz, bisita egoteko bi orduko tarteak.

Joxe Migelek bestalde, kartzela barruko ordu luze eta astunak arintzeko, liburu artean pasatzen du ahal duen denborarik gehien. Era honetan, euskarako titulua atera zuen lehenik, Euskal Filologia ikasketak bukatu berri ditu eta orain frantsesari eskaintzen dio bere denbora. Hala ere, badakigu, GOIERRITARRA aldizkaria irakurtzeko tarteak hartzen duela. Hileroko irakurle fina dugu.

Kartzela barruan denbora geldirik



satu arren, kanpoan itxaroten daudenentzat ez da azkarrago pasatzen. 18 urte denbora asko da. Ez pentsa, Joxe Migel bera da familiartekoak animatzen dituen. *"Bera oso animoso dago. Irabaziko dugula, laster etorriko dela... esaten du. Guk hemen kanpotik ezin dugu ezer egin, ez dakigu noiz arte dagoen, baina berak animatzen gaitu"*, aipatzen du amak.

Denbora asko igaro da eta Azurmendiren sendiak eskatzen duen gauza bakarra, *"denak etxera etortzea eta benetazko pakea lortzea"* da. Ea bada Urte Berriak horretarako parada ematen duen eta laster Beasainen zaitugun, Joxe Migel.

Loinaz Agirre
Nekane Altuna

GOIERRIKO NEKAZAL TURISMOAREN SAREA ZABALTZEN ARI DA

Baserriari puska eransteako asmotan

Orain dela hiru urtetik hona ofizio berri bat sortu zaie gure baserritarrei. Goierriko 5 baserri (Gipuzkoako 48) hasi dira eskaintzen beren zerbitzuak, alojamendu eta mantenuak, turistei. Astialdirako alternatiba bezala sendotzen ari da agroturismoa. Naturarekin bat.

Ordiziako Nekazal Etxean ("Agraria")n informatuko zaitu gu informatu gaituen bezala Karmen Jimeno nekazal-tekni-koak, Goierriko arduradunak. Baserrietara deitu dezakezu bestela. Bizkai-ko Garain dago ordea Elkartea eta han egin behar dira erreserbak. Telefonoa: 94-6201188.

Nekazal-turismoa zer den

Guzti honen helburua: baserritik ateratako mozkinaz gain (martxan egon behar baitu), turismo berri honekin bertakoen bizi-maila hobetzea. Duela 3 urte Jaurlaritzak nekazal turismorako dekretua eta dirulaguntzetara biltzeko arauak kaleratu zituen ezkerroztik ugaltu dira eskaerak. Ostatuak urte osoan egon behar dute zabalik (hilabete batean izan ezik) eta kondizio onetan; gela bikoitzak izan behar dute, gutxienez bi lagunentzako ostatu, komun eta gosariarekin eta gehienez 6 gela/12 lagunentzako egokiera. Hor dira sukalde- sarreraren eskubidea uztea edota etxebizitzaren zati bat horretara ematea. Ostatu erdia edota osoa, ordainduko ostaturaren aukera ere bada. Benetako ostatuaren kalitatea dute, maila ona ematen dutelarik. Baserrietan egun batzu pasatzea ia denon esku dago. Horregatik egin du gora demandak.

Erakundearen dirulaguntzak ia 5 milioitara iritsi daitezke gehienez, etxebizitzak bat eraiki edo eraberritu ezker. 10 eta 6 urterako konpromezua hartu behar du ordainetan baserritarrak, segun eta zer obra egin den. "Inbertsio hau ez da berez errentagarria, esker-rrak dirulaguntzak dituztenik. Etxe-puska bat konpondu eta hori hor geratzen da",



diosku Karmenek. Bestalde, era honek opor-rrak lasai eta jendartetik urrutixeago, etxeko bizitza egiteko eta giro erruralean ibiltzeko bideak ematen ditu. Beste leku batzuetan funtzionatzen duela ikustean, baserritarrek (adinakoek baino errazago gazteagoek) ongi etorria eman diote eta turista berriek, berriz, beste hainbeste: probatu duenak errepikatu nahi. "Han bizi naiz ni pakean". Denak pozik.

Goierriko muturreraino

Nahiz eta, beharbada, goierritar irakurle hoiei bertako halako baserrietan gelditzea ez zaizuen okurrituko, hemengoetaz aritu beharko dugu. Gure herriak eta eskualdea ezagutarazteko sistema izan liteke. Goierriko landa- turismoaren egoera? Gaur gaurkoz era horretako 5 baserri dauzkagu, Abaltzisketa, Altagara, Ezkio-Itasoa, Idiazabal eta Zegaman. 3 eskaera gehiago daude, 1 Zaldibitik eta 2 Lazkaoetik. Azken hauei onartuko omen zaie eta datorren udarako 8, beraz. "Ez dut uste kostaldean adina lortuko dugunik, baina piskana goraka doa. Berexitasunen bat badu etxeak gainera, bada hobe. Puntu zehatz, tradiziozko edo interes berezikoetan okupazio on bat mantentzen da, udan bereziki. Etxebizitzaz gain, zerbait gehiago eskeini behar da, zaldi edo mende-bizikleta ibilaldiak, inguruak erakutsi. Etxekonagusiak saltseroak badira, lantzen badute, natura- gidatza egin, hainbat hobe".

Promoziorako ikastaroak eta guzti antolatu zaizkie berriki ostalari berriei.

Europar urteak daramatza nekazal turismoak arrakastatsu. Horregatik inguratzen dira, esaterako, holandarrak Idiazabala edo Altagara, alemaniar-rrak Mandubi-gainera, e.a. (Mandubikoa dirulaguntzarik jaso gabe sartu da zirkuito horretan, baldintzak betetzen baititu).

Idiazabalgoak hartu izan ditu udan euskal familietan euskara ikastera etorri ohi den jendea. Baina jeneralean madrildar eta katalana dabil gehien. "Hiru urtetan jende asko sartu da honetan. Orduan dirulaguntzak murriztea edo kontrolatzea pentsatu da. Dena den, nekazal turismoa oso zabaldua ez dagoenez Goierri, hemengo potentziatu egingo dela dirudi".

Prozesu interesantea eta promozionatzeko modukoa dakusa Karmenek: "Izan ere ostalaritza ekipamendurik ere ez baitugu bestela. Ordizia, Beasain eta hauetan ezer gutxi dago. Kanpotarrek ez dute aukera gehiegirik gure artean merke eta ondo egoteko. Baserritarri ez dio apuroren batetik aterako, baina bai lagundu eta etxearen berrikuntza lortuarazi. Hemen gertatu da baserria guztiz konpondu behar eta agroturismoaren mogidan sartzeak xox batzuen aurreratzea ekarri diela. Horrek, noski, konpromezu bat eskatzen du, pertsona bat horretara egotea, egun osoan ez bada ere".

Garai bateko benten garaia joanda, nobedoso suertatu da gor-

puzten doan turismo errurala. Gidak argitaratzen dira, martxa hartuz doa turismo berria eta dirubidean jartzeaz gain, baserriak iraun dezan balio dezake, ingurumariok ezagutze- ra emateko. Bertako produktu eta bizimoduaren erakusleho paregabea izan daiteke. Baserriaren arnas berria.

**"Turismoa
Goierri
potentziatu
egingo dela
dirudi".**

Non-zer-etxe

Hona hemen Goierrialdean Nekazal Turismoan sartuta dauden baserrien zerrenda eta ezaugarriak:



ABALTZISKETA:

Abaltzisketa eta Orendain artean kokatua, Sasiain auzoan: "Nacra Haundi" baserria. Jabea: Jesus M Gonzalez. Tfna.: 654033. 4 pertsonentzako kapazitatea, gela bikoitzak, 2 komun, 5.500/6.000 pzta. artean ostatu osoa, sukalde eskubidea eta meriendak ematen dira. Mendi-irteerarako, Txindokira igotzeko eta zaldian ibiltzeko aukera apartak. Gertueneko herri kaskoa 12 km. etara.



ALTZAGA:

"Altzagarate" baserria (jatetxea, ikus aurreko GOIERRITARRA), izen bereko auzoan. Jabea: Jose Garmendia. Tfna.: 884196. 4 lagunentzako lekua, 2500/3000 pzta. artean gela, komun bat, 300 pzta bakoitzaren gosaria, 2800 otorduak, meriendak ematen

dira, mendia, Baliarrain, Abaltzisketa, Gaintza... eta historia aldetikako monumentuak gertu; herri- kaskotik 2 km. tara.



EZKIO-ITSASO:

Ezkio-Itsasoko hesparruan egon arren, Beasain-Azpeitiko bidean, Mandubiako gainan, "Mandubiko benta". Jabea: Mari Anjeles Bizkai. Tfna.: 882673. Ostaturerari dagokionez, 4 lagunentzako lekua, 3.000 pzta. na gelak, 300na gosariak, 2.700 otorduak, bertan mendia, herria 7. km. tara, Urola eta Goierri artean.



IDIAZABAL:

Idiazabalgo sarreran eta bertatik bertara herritik, zertxobait apartatuta egon arren, muino batean, "Ondramu+o". Jabea: Miren

Jaione Urbietia. Tfnoa.: 801292. 8 lagunentzako ostatua, 3500 pzta. gela bikoitzak, 2 komun, 250na gosariak, 11 km. tara zaldiak, Idiazabalen zer ezagutua bai, Segura- bidean pasio bikainak.



ZEGAMA:

Zegaman, Zerain eta Altsasu artean, herriatik 2 km. tara, Aizkorritik gertu gertu, "Arrieta Haundi". Jabea: Mari Luisa Marin. Tfnoa.: 801890. 6 lagunentzako teilapea, 3.000 pzta. na gelak, komun bat, 250na gosariak, inguru paregabea gozatzeko aukera.

* Oharra: Tarifa hauek alda daitezke zerbait, urtaro bereziak etxearen jabeak finkatuko ditu.

Jon Arano



LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



MUEBLES

Ordizia

HALTZARIAK

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50

4 NEKAZAL HEZKUNTZ IKASTARO MARTXAN EHNE-REN ESKUTIK

Xabier Akizu: "Baserri-industrialtzeak dakar kalitate- galera"

Lehengoko zentzuari eutsiz, modernitate bidean ote baserria? Hala dirudi, EHNE sindikatuak Gipuzkoan martxan eta bukatzeaz dauzkan 4 ikastaroei erreparatuz gero. Itsaso-Ezkiogako Xabier Akizu EHNEko kidea, GOIMENen ibilia da, halako ikastaroen koordinatzaile eta honakoetan ere badu ardurarik.

Gaurko baliabideak erabiliz eta egungo beharrei erantzunez, irabazpideak berplanteatuz bilatu behar zaio irten-bidea baserriari, bere oinarritzko iza-kerak ukatu eta ahaztu gabe.

Bati behin okurritu eta hala emandakoak ez baino jarraipen bat izango dutelakoan eratu dira ikastarook: bata, baserriko oilaskoen hazkuntza; biga baserriko ogi-egitea; bertako esnearen (ahalik eta zuzenen) komertzializazio-bidea (poltsaritzea, gazta freskoa egitea, iogurrak, e.a.) hirugarren eta barazkien ikastaroa laugarrena. Baserri-tarrei zuzenduta zeuden, berehala osatu ziren lau hamabosko talde eta INEMetik lortu du sindikatuak kostuak estaltzeko laguntza. 4 ikastaroon oinarria kalitatea zaintzea da. Izan ere, EHNEk aspalditxotik dauka argi nekazarien apustua kalitatea dela. Ingurua-giroarekin zeregin handia daukate baserri-tarrek eta, bestalde, merkatuan beste irten-

biderik ez daukatelako: beste leku batzutan gehiago produzi-tzen da. Kopurutan ezin konpe-titu, kalitatean bai, ordea.

Kalitate hori oraindik ez dagoela defini-tua dio Akizuk. "Parametroak oso alda-korrek dira, segun nork zer dioen kalita-teaz. Edozein modutan, kalitatea guretzat ez da kantitatea edota presentzia, janarian kimika gehiegi ez dadila egon baizik, eta janari horrek gusto ona izan dezala, horrek du ardura gehiago". Europa mailan eta he-men ere frogatan dagoen nekazaritza bio-logiko/ekologikoa dute erreferentzizat. "Baldintza horietara iristeko pausu batzu eman beharra dugu oraindik. Ezin dugu esan oso urruti gaudenik (Administrazioa baino kontzientziatuago dago baserri-tarra), baina beste tratamendu ekologiko ba-tzu planteatu beharko genituzke erdi-epe-rako helburu bezala".



G.- Komenta ditzagun banan-bana ikastarook.

E.- Ni neu gehiago arduratu naiz base-riko ogiaren horretan, ze urteetan Itsasoko gure baserrian ari gara sakontzen hori. Baina, bai, esan liteke jendea zai zegoela halako ikastaro batean apuntatzeko. Base-riko konplementu bezala daude planteat-urik. Oilasko hazkuntzaren ikastaro ingu-ruan, ikusten genuen lana egin dela Fraisoro ikastetxean. 8 bat urte daramatzate Eusko-oiloaren arraza definitzen, eta horri irten-bidea emateko profesionalizazioan dago kakoa, nolabait etekin bat ateratzea maneju on batekin. Gai hoiek ikutu dira, eta esan liteke jende bat badela ja lehen baino hobe-



ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa

- LEIHOAK, ATEAK ETA ABAR
- ESKAILERAK NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

OSASUN

**BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA**

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA



ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03


ATAUNGO SANTAGEDA KANTAK

Beste zenbait ataundarren artean, Juan Arin apaiz zintzoari zor diogu bereziki Santa Ageda kanta hauek eskuz idatzirik gaur arte gordetzea eta Aita Isidro Baztarrika orain dela gutxi zenduari beroiek argitaratzea, Jose Arratibelenlaguntzaz, "Jaunaren Deia"-n (78. zenb., 1982.go urtarrila-martxoa). Zabalkunde eskasa izan zuen, ordea.

Honela edo honelatsu kantatu izan da Ataunen gizaldiz gizaldi eta urtez urte kanta zahar hau, ahoz aho jasota. Badira, noski, bariante eta aldakinak, eta ez gutxi. Beharbada izango dira oraindik zenbait kopla herri horretan jasogabe daudenak. Eske kanta zahar hau ezaguna da Ataundik kanpora ere, Euskal Herri bazter eta herri askotan, bainan, egia esan, ez da aurkitu Ataungoa bezain luze eta aberatsik: 119 bertso dira guztira.

Kopla hauen balioa alde askotatik azpimarra eta azter daiteke. Eta kontutan edukitzekoa da, kopla horietako asko gure herri literaturan zaharrenetakoak ditugula, Erdiarokoak alegia. Santa Ageda kantak, jakina, kantuz ematen dira, eta Ataunen erabili ohi den doinu berezi eta ederra hemen bertan aurkituko duzu.

GOIERRITARRAren asmoetan beti egon ohi da gure altxor historikoen berreskuratzea. Lan aberats, eder eta paregabe hau (ber)argitaratzea, besterik ez da, beraz: omenaldi bat egitea kantariei, jaso zutenei, Ataungo herriari, goierriarrari eta euskarari. On dagizueta opa dizuegu eta ea kopla xumeok berriro jendeon ahotan entzuten ditugun. Hori da gure nahia.



ASIERA

1.

Alabatue, bedeinkatue
da Sakramentu santue,
pekatuaren mantxarik gabe
Jesus da kontzebitue.

2.

Astigarraga, Erreterrie,
irugarrena Oiartzun;
Dios te salbe, nere lagunak,
altu ta berdin erantzun.

3.

Dios te salbe, ongi etorri,
gau on Jainkoak diela,
gau on Jainkoak diela eta
biar egun on diela.

4.

Sukaldeetan eder dirade
apal berriak letonez;
Nagusi Jauna, esan bezaigu
asiko geran edo ez.

5.

Otsabilaren laugarrena da
Santa(i) Ageda bezpera,
nere jendeak ez ikaratu
kristau gaiztoak ez gera;
auzoetako galaioz gatzoz
gaur zuek kontsolatzera.

6.

Santa(i) Ageda andrea,
Birjinearen amea,
Birjinearen amea da ta
bigarren ezelestea.

7.

Martirioa martirizatzen
Irukiaren fedea,
ark arekintxe irabazi zun
zeru altuko silea;
zeru altuko silea eta
mundu onetan lorea.

8.

Or goien dago ermita,
Santa(i) Ageda deritza,
ango segore serbitzarientzat
limosna biltzen gabiltza.

9.

Santa(i) Ageda, Santa(i) Ageda,
Santa(i) Ageda gaur degu,
Santa(i) Ageda gaur degu eta
artxek bialdu gaitu gu;
kopela zaitzagula zu,
ongi ar gaitzazula gu.

10.

Uxo txuriak zabaltzen ditu
goizen goizetik egoak;
etxe santu onek bedeinkatuak
ateak eta leioak.

11.

Gazte jendea pesta egunean
plazara gera juntatu,
plazara gera juntatu eta
andik onera pentsatu
etxe ontako jende noblea
bear genduke koplatu.

12.

Piparrakin espezi
Baionan degu erosi;
Nagusi Jaunai eskatzen diogu
koplatzeko lizentzi.

13.

Donostiako ziudadean
Iru lengusu barbaro;
lizentziarik egon ezpalitz
esango zigun lenago.

NAGUSIARI

14.

Asiko banaiz asi nadila
nagusi ori koplatzen;
zaldie dago silatzen,
lau ointxoetan perratzen,
etxe ontako nagusi jauna
zaldiz da eleizaratzen.

15.

Zaldiz da eleizaratzen,
zilarrez oferendatzen;
andik etxera datorrenean
urre silan da jarritzen,
txokolatea artu artean
andikan ez da jeikitzen.

16.

Nagusi Jauna berori,
kortean ezjala agiri,
bikorra sarri botatzen zaio
beorren eskuko pimari.

17.

Eskuan eder bastoia,
ilean seda kordoia;
nagusi jaunak bere eskutik
botako digu dobroia.

ETXEKO ANDREARI

18.

Baratzan eder txerrena,
ondotik gora lerdena;
etxeke andrea kopla dezagun
nagusiaren urrena.

19.

Etxeko andrea zabala,
leku oneko alaba,
bidean gatz informaturik
limosnera zerala;
etxeke andrea gugana
argie eskuan duala.

20.

Esku batean ogi aundie,
bestean lukainka pareta,
orei guztiei gutxi deizola
buruan urdai aldea;
mantala ere goien dakar da
antxe dozena arrautzea.

21.

Urdaiazpikoa ona da bainan
solomoa da gozoa,
puskarik kentzen aritu gabe
ekarri zazu osoa.

22.

Lukainkatxo ximurra,
onek falta du laguna,
orri laguna azaltzerako
zabalduko da eguna.

23.

Zakua ere aundia degu,
aitona batek egina,
au betetzeko asko bear du
lukainka edo sesina.

24.

Guretzat ere zerbait bada ta
beretzat berriz ondrea,
etxe ontako etxeoandrea
txit emakume noblea.

25.

Udaberrian zeña dan eder
lino txikiaren azie;
etxe ontako etxeoandreak
guztontzat badu grazie.

NAGUSI GAZTEARI

26.

Orain aurrera goazen
nagusi gaztea koplatzen.

Usoak dira kotara,
nere begiak lotara;
nagusi gaztea, oraintxe goaz
beroren koplaetara.

27.

Ostri altuan izarra,
errekaldean lizarra;
etxe ontako nagusi gazteak
urre gorritz du bizarra.

28.

Urre gorritz du bizarra eta
zilar zabalez espalda,
berori bezin gizon presturik
erri onetan ez al da.

29.

Soroan eder goldea,
soñean kapa morea;
etxe ontako nagusi gaztea
ondo gizontxo noblea.

30.

Errekatxoan arri limori,
zaldi urdinek irari;
orra bada ta (izena) ori
zazi erregen kriari.

31.

Baratzan eder azea,
gizon onaren trazea;
zerori ere zerbait bazera
noblea dezu andrea.

32.

Bestela gizon ona dalarik
jekerea du nagie,
baldin erregek jakiten badu
orren tretaren berrie,
sari batean bialduko lioke
ezpatarekin zaldie.

33.

Nagusi gazteori zaldune,
urrezko ezpatadune,
semea eiteko emen daukezu
emazte pappaldune.

34.

Txorie dago sasia,
birigarroa esian;
zu bezin gizon presturik ezta
eguzkiaren azpian.

35.

Sentitzen zaitut sentitzen
nola zabiltzan jeikitzen,
beroren ointxo politen otsa
sala berrin det aditzen.

ANDRE GAZTEARI

36.

Eder intxoren kordena,
alaxen degu ordena;
andre gaztea kopla dezagun
nagusi gaztearen urrena.

37.

Etxekoandre txit ona,
zere gauzaren doi ona,
Pazkoa goizean jantziko ituzu
zere soñean zazpi gona.

38.

Txuri nabarra azpiko,
gorri ederra gaineko,
andrea, zure parerik ezta
plazea ondratutzeko.

39.

Eder basoan ezpala,
nik ezin esan bestela;
zure besoan lo egin leike
paradisuan bezela.

40.

Mai aundietan zeña dan eder
tenedorea eta kutxara;
orra bada ta (izena) orrek
badauka baten patxara.

41.

Etxetik asi eta plazara
arriz daukazu galtzara,
(izena) ori jai aundietan
ateratzen da dantzara.

42.

Gonea dauka josteko,
jai aundietan jazteko,
zazpi kriada balio ditu
etxea gobernatzeko.

GIZONEZKO ALARGUNARI

43.

Orain aurrera goazen
(izena) ori koplatzen.

Elizan eder mantue
seda piñez forratue;
orra bada ta (izena) ori
alargun bedeinkatue.

44.

Alargun orren etxean
santuak daude oltzean;
guztiak lagun izango ituzu
eriotzako trantzean.

EMAKUMEZKO ALARGUNARI

45.

Orain aurrera goazen
(izena) ori koplatzen.
Humildadean, karidadean
bizi zerade munduan,
gero leku onen jarriko zera
paradisuko koruan;
paradisuko koruan eta
Birjina Amaren ondoan.

46.

Armarioan sague,
kontrarioa katue;
orra bada ta (izena) ori
alargun bedeinkatue.

47.

Basoan eder elorri,
ondoan jota erori;
orra bada ta (izena) orrek
Ama Birjina dirudi.

48.

Etxaburuan sagarra,
ezpalin bada zakarra;
orra bada ta (izena) ori
ogi ebalde zabala.

49.

Or goien dago errota,
irine dauka igota;
orra badata (izena) ori
Birjina Amaren debota.

50.

Etxaburuan goldea,
aren gañean belea;
orra bada ta (izena) ori
emakume txit noblea,
pobreak ere egiten dute
nun zeran zure galdea.

GAZTE JENDEA

51.

Iruñek badu zerkea,
zerka barruan dendea;
merezki du ta kopla dezagun
emengo gazte jendea.

52.

Sasirik sasi birigarroa,
pagadietan usoa;
etxe ontako gazte jendeak
aurten badute jasoa

MUTILLEI

53.

Ametz burutxo betea,
aurten du bere urtea;
orain aurrera esango degu
(izena) orren partea.

54.

Zapata eder oñean,
kapa berrie soñean,
bosteun zezen jokauko dira
zu ezkontzen zeranean.

55.

Zazpi danbolin, zortzi kitarra,
musikeroak amabi,
oien danaren dantza aurretik
ibiliko da berori.

56.

Orain aurrera goazen
(izena) ori koplutzen.

Preskorik zaude preskorik
ez al dezu ezkon asmorik,
Goierri ontan eztet barrunda
olako maiorazgorik.

57.

Or goien dago iturri,
urre txorrotik erori;
orra bada ta (izena) orrek
amalau urre txintzarri.

58.

Amalau urre txintzarriekin
zazpi damaren eguzki,
oiek guztiak ala izanik
geiago ditu merezi.

59.

Etxaburuan babea,
erdie leka bagea;
orra bada ta (izena) ori
ezta mutille bagea.

60.

Jira batera, jira bestera
nundinai zure famea,
bost mila dukat malen ditula
emen dakarzu andrea.

61.

Aizearekin dantzari dabil
mendi altuan lañoa;
zure emazte egiten dana
zori onean jaioa.

62.

Eskuak eder eskuko,
jipon zurie soñeko;
orra bada ta (izena) ori
ona da lagun arteko.

63.

Ona da lagun arteko eta
are area korteko,
zazpi zalduntxo balio ditu
dama bat kortejatzeko.

64.

Esil-ondoan astoa,
botatzen zaio lastoa;
dama gazte bi engañatzeko
etзера mutil gaiztoa.

65.

Sibili eta Granada,
Catalunian gerra da,
aien artean pakea eiteko
(izena) ori ona da.

66.

Sala berrian jartzen danean
amabi dontzellarekin,
aietako bat aukeratzean
gelditu Jaungoikoarekin.

67.

Gerrian eder ezpata,
etzaitezela espanta,
Jaun zerukoak gorderik dauka
zuretzat neskatz galanta.

68.

Basoan eder aiena,
beien artean zezena;
orra bada ta (izena) ori
urre lirantxo txuxena.

69.

Zelaian eder ardie,
beltzen artean zurie;
orra bada ta (izena) ori
lagunen ondragarrie.

70.

Etxaburuan otea,
auntzek jan dio puntea;
(izena) orren maiteak
bost mila dukat dotea.

71.

Basoan eder gorosti,
auntzek argana kutesi;
orra bada ta (izena) orrek
dama eder bat merezi.

72.

Udaberrian zeña dan eder
ostoz jantzirik basoa;
zure emazte egiten dana
zori onean jaioa.

73.

Ilaren bian Kandelario,
ogei ta lauean San Joan;
bear duana etortzen bada
a ze mutila dagoan.

74.

Keriza txiki betea,
aurten du bere urtea;
merezi du ta koplazagun
(izena) orren partea.

75.

Pagok adarrak zabalak ditu
usok umeak an ditu;
orra bada ta (izena) orrek
adiskideak baditu.

76.

Errekaldean igela,
preskoa dauka gibela;
zu bezelako galai gazterik
errian eztala berri da.

77.

Gure errian ardoa merke,
kuartilloa zazpian;
zu bezelako mutillik ezta
oskarbiaren azpian.

78.

Ekaitz gogorra pasatu dezu,
ekaitz ondo biguñe,
(izena) ori fama daukazu
zerala artzai bikaiñe.

NESKEI

79.

Sazerdoteak garbitzen ditu
meza emateko eskuak;
dama gazteak esango itugu
zuen merezimentuak.

80.

Illargiaren argitan
artu gaituzte begitan;
erregaloak bildu leizke
dama gazte oien bisitan.

81.

Arantza beltzak ostu txikie,
puntea zaio loratu;
orain emendik bear genduke
(izena) ori koplatu.

82.

Larrosa dago zabaltzen,
usai gozoa banatzen;
asiko banaiz asi nadilla
(izena) ori koplutzen.

83.

Txorie dago sasian,
birigarroa esian;
zu bezelako dama ederrik
ezta Ataungo errian.

84.

Uretan eder al zera,
(izena) eder nun zera,
nun zera bada nun zera,
emen agiri etzera.

85.

Enperadore Barcelonako
seme batentzat eske da,
azaz osteria enpeñoz dabil
biajero Panplonakoa,
nai dezuntxon bat aukera zazu
larrosa maietzekoa.

86.

Etxe ontatik plazara
ar leunduz dago galtzara,
(izena) ori aterako da
jai aundietan dantzara.

87.

Kontsejupetik plaza berrira
asko daukazu begira,
zu bezelako dama gazterik
errian eztala berri da.

88.

Usoak egok zabalak ditu,
lepo aldea lumatsu;
orren damatxo konponitue
nork eramango zaitu zu.

89.

Damatxo gazte konponitue,
ori kolore gorrie,
zure matralla iruritzen zat
klabeliñaren orrie.

90.

Klabeliñaren orriarekin
larrosa maietzekoa,
zuri begira ementxe nago
damatxo biotzekoa.

91.

Udaberrian illarra berde,
udazkenean latza da;
dama gaztea badadukazu
besteatek aña patxada.

92.

Preskorik zaude preskorik,
ez al dezu ezkon asmorik;
Goierrri ontan ez det barrunda
dontzella ederragorik.

93.

Baratzan eder lirio,
usai gozoa dario;
sei galai gazte ementxen gaude
zu ikustea medio.

94.

Zu ikustea gaur guretzako
zer gusto biotzekoa,
lenbailen bada agertu zaite
(izena) biotzekoa.

95.

Lezoak or du urbide,
Pasaia Erreterrie;
eraztuntxoan pasa liteke
damatxo orren gerrie.

96.

Eraztuntxoia diamantea,
ukalondoa berdintu,
orren damatxo konponitue
nork eramango zaitu zu.

97.

Basoan eder albitze,
aizeak dantzan dabilte;
erri ontako galai gazteak
zure ondoren dabilte.

98.

Palsoen batek engaña etzaitzen
aren kontuan zabilta,
Jaun zerukoak bialdu gaitu
aitzera ematen gabiltza.

99.

Baratzan eder salbie,
pipatxo kirten gorrie;
orra bada ta (izena) orrek
illea dauka orie.

100.

Illea dauka orie,
besoa bezin lorie,
edozeinentzat ez da egongo
zure musutxo gorrie.

101.

Esku musuak zuri ta garbi,
gerria berriz liraña,
Jaun zerukoak egin zaitzala
ama on baten erraña.

102.

Soñean eder kurpiño nabar,
lepokoetan enkaja,
geiago ederrak dira baño
zuk daramazu bentaja.

103.

Etxaburuan iturri,
kañuan degu ekarri;
nekazariaren alaba da
Erregearena dirudi.

104.

Sugea dago negarrez,
erioaren bildurrez;
orra bada ta (izena) orren
musue laztan belarrez.

105.

Musue laztan belarrez
bulartegie zillarrez,
askok beretzat nai lokea baño
ama bereak eman ez.

106.

Errotan dago iriñe,
aren azpian osiñe;
etxe berri bat egingo nuke
dama, neretzat baziñe.

107.

Atun preskoak egiten dute
itsas gainean irari;
(izena) zure leiondoetan
bosteun zaldun bellari.

108.

Bosteun zaldun zaldizko,
beste ainbeste oñezko;
sedazko reja urre purpullak
ematen dizuelako.

109.

Basakantxoa betea,
aurten du bere urtea;
merezi du ta koplá dezagun
(izena) orren partea.

110.

Poltsean dauzkat diru bi
batak bestea dirudi;
orra bada ta (izena) orrek
urre botoia dirudi.

111.

Orain aurrera goazen
(izena) ori kopláten,
bosteun dukat emen dauzkatzu
irabaziak ardatzen.

112.

Azaz osterá amak jarririk
dotearekin arreo,
gauzea pranko emen daukazu
eskojiturik baleo.

APAIZARI

113.

Aldaran dago kalize,
soñean sobrepelize,
Bikario jaunak bereak ditu
sakristi eta elize.

114.

Abade sazerdotea,
ordena santuz betea,
beorren ordenak ekarri digu
mundura kristandatea.

BUKAERA

115.

Elizan eder liburu,
usoak aren inguru;
guk izenikan eztagiguna
paradisuan aingeru.

1

Etxaburuan artea,
ei egun ditu asteak;
gutxien ditunak zazpi ezkongai
etxe ontako gaztea k.

117.

Salamankan naiz izandu,
bidean estudiatu,
estudiante gazteak gera
eztegu ondo koplátu.

118.

Etxe ondo latatu,
Palaziotzat pintatu;
deskortesirik egin badegu,
jende nobleak, barkatu.

119.

Izenetan dan ederrena da
nere jendeak Mikela,
gu emendik bagoaz eta
gau on Jainkoak diela.

toxeago prestatua. Oinarria zen janaria ez dadila subproduktuekin eginga izan eta oilaskoak libre egon behar direla zelaian, arauak betez.

G.- Zer eman du esnearen komertzializazioarenak?

E.- Ikailu baten sanitate eta higie-ne-riak zeintzu izan behar duten aztertu dugu lehenik (behiak ondo jeztea, elikadura...) eta gero zentratu gara esnearen erabilpe-nean. Zuzenean saltzen duten etxaldean es-perimentziak ikusi dira eta hurrena, berriz, behi-gazta fresko mota bat nola egin zite-keen. Ikastaro tekniko-praktikoa. Norberak nahi duen erako, gusto ezberdineko, gazta ateratzeko baldintzak (tenperatura, gatzagi, fermentazio eta guzti hoiek) nola aldatu eta erabili behar diren. Jendea oso gustora gel-ditu da, esperientzia animagarriak ikusita. Esne-poltsaratzea, io-gurra, deribatuak, ir-tenbide bezala hartu di-ra, esnari beste etekin bat ateratzeko aukera. Normalean erre-di-mendu handiagokoa, baina noski, horrek es-katzen du prestatuta egotea eta banaketa-sarea lotuago eukitzea.

G.- Baserriko ogira bueltatzen gara, bestalde?

E.- Hor frogatu dugu mendeetan zehar gizakiaren janari oinarritzko eta nagusia izan denak, nahiz lehen baino merkeago egon eta itxuraz politago, ez duela balio

elikatzeko. Praktikan ikusten da gai-nera buelta ematen ari zaiola egoera horri eta jendea okindegikotik base-rrikora doala. "Baserriko ogitan" era askotakoak daude: integrala / txuria, berantzagia edo kaleko lebaduraz eginga, dena eskuz edo oreka makinaz egindakoa, baina denak ere aditibo-rik gabekoak dira, egurrez berotuta-ko labean, eta gehiago edo gutxiago eskuz eginak. Erabat ogi diferentea ekoizten da, benetako kalitatekoa.

Jende bat konturatu da ogi makinatua jan-erraza dela, baina beharrezko bitaminak-mineralak falta zaizkiola eta hobea dela integrala edo erdi-integrala. Hauek merkatu zabala dute, bakoitza geure aldetik gindoa-zen. Batak besteengandik ikasten aritu gara eta hortik jarri dugu profesionalizatzeko bidean jendea.

G.- Eta laugarre-na, barazkigintza.

E.- Iazko kurtsoan Gipuzkoako Mendi Nekazaritzak antola-tu zuen halako bat eta aurtengoan EHNEK, oso inportantea dela-

koan, horretan dabilen hamaika bai baitira. Aurrekoan hezitako teknikoak aprobetxa-tuz eman da eta, egia esan, beharrezkoa zen, ze alperrik da esatea hemengo letxua- to-mateak, e.a. ditugula, kanpoko teknika ber-berekin (kimika eta ongari berdinekin) sortutako produktuak badira. Hemengoa baloratu ohi bada, kalitate bat zuelako izan da. Naturaltasuna galtzen ari gara teknikak



aldatzen, okertzen ari direlako. Galtzen goazen kalitatea berreskuratzeko planteatu da ikastaro hori.

G.- Lehenagokora, sustraira buelta-tuz.

E.- Halaxe da. Gaur egun badaude mila bitarteko aprobetxa daitezkeenak (maki-neria, tratamenduak, merkaturatzekoak). Oraingo baliabideez, baina lehengo zen-tzuz, lurra errespetatuz kalitatezko produk-tu naturalak sortzea da gauza. Bide bakarra da gainera. Jangai onak ez lirakeke lujo- ar-tikuluak izan behar, denon eskura egon beharko lukete, eskubidez. Guk eta EHNEK ere, ez dugu uste kalitatezko janariak baka-rrik eliteentzako izan behar direnik. Bes-talde, ingurugiroa zaintzeko ez da beste bi-derik. Bai bata eta bai bestea, geroz eta preziatuagoak ditugu. Geneuzkalako ez ge-nituen preziatzen, baina galtzen goazen neurrian berriz baloratzen ditugu, bai!

Mikel Aramendi
Jon Arano

LEIAR

KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarrazteak - Beirategiak - Orma-ispiluak

ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tlf: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tlf: 88 60 70

BEASAIN



JATETXEA

DONOSTIA

ALTZAGA

Itxasondo Ordizia

885255

GRUPO VITALICIO

SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES

ASEGURUAU

Unanue Enparantza, 3 • Tfnoa: 16 04 86



GOIAGI OKINDEGIA

Etkezaretza, z/g.

Tel. 88 12 11

ORDIZIA

ORDIZIAR KOMADRONA, ERIZAIN, PODOLOGO ETA PRAKTIKARIA

Lutxi Zaldua, bokaziozko emagina urteetan

Makina bat urtez izan da Ordizia, Itsasondo, Baliarrain, Legorreta, Altzaga, Arama, Lazkao, Zaldibia, Beasain eta Idiazabalen emagin, "praktikante", erizain eta podologoa Luzia Zaldua. Goierriar mordo bat munduratzeko ikusi eta lagundu du eta baita xiringa aurrean izutzen ere. Gaur egun, 73 urte izan arren, bere lana utzi gabe injekzioak sartzen jarraitzen du. Bere bizibidea benetan maite duen emakumea dugu Lutxi.



Argazkia: GEMA M. ARRUGAETA

Lalduatarra gerra ondoren hasi zen ikasten, 1940. urtean. Donostiako maternidadean barneikasle modura 15 urte igaro ondoren, erizain eta emaginaren tituluak atera zituen. Praktiki-kari eta Podologo ikasketak berriz 50.ean burutu zituen; hala ere, diplomak 10 urte beranduago iritsi omen zitzaizkion etxera.

Lanean hasi zenean oso gaizki pasa zuen Lutxi. "Egunean 12 ordu egiten genituen lan. Ez geneukan salidarik, ez eta oporrik ere. Gainera gosea etorri zen. Ikaragarri pasatu genuen, ez zait sekula ahaztuko". Garai hartan emaginek husteria bat kobratzen zuten; 70. urterarte nomina eta gizarte-asegururik gabe aritu behar, baina gustora egin ditu lan guz-

tioik, benetako bokazioa zuelako ikasi bait zuen. Gaur egungo erditzeko aurrerakuntzen alde agertzen zaigu, galdetutakoan. Batez ere erditzearen aurreko preparazioaz hitzegiten digu, bere ustez oso garrantzitsua da hori. "Maternidadean ikasten nengoenean, emakume asko ikusten nituen garraxi bizian; eskutik heldu eta ondoan jartzen nintzen arnasa

ORDIZIAKO BARRENA HERRI EUSKALTEGIA



- ✚ Ikastaroa martxan Otsailetik hasita
- ✚ Alfabetazaitze


Tfoa: 88 12 80 — ORDIZIA



MAIZPIDE
euskaltegia

Tfna.: (943) 88 92 31 / 32
L A Z K A O

GOIERRI EUSKALDUN BIHUR DEZAGUN



GOIHERRIKO
EUSKAL
ESKOLA

Tfna.: (943) 16 02 82
Faxa: 88 79 71
L A Z K A O

noiz hartu behar zuten esanez: segituan lasaitzen ziren. Prestakuntza falta eta beldurragatik jartzen ziren horrela”.

Gimnasia egitea ere oso garrantzitsua omen da. Lutxik dioenez, lehengo emakume baserritarrek eta ijitoak oso erraz izaten zituzten umeak, askotan etenik gabe. Hau gehien bat gertatzen zen lanean asko mugitu behar zirelako. “Egungo emakumeak kotxean joaten dira edonora, gehiago ibili behar dira eta zigarroa utzi behar dute. Izugarria da gaurko neskak zenbat erretzen duten, hori txarra da bai beraientzat eta baita umeentzat ere”.

Orain “indizio” Epidurala hartzen dutenak ere badira. Anestesiaren antzekoa da, baina ez da konorterik galtzen. Ez da inongo minik sentitzen, baina dioten bezala, gauza polita da umea etortzen sentitzea. “Erditzea ahal den naturalena izan behar da, umea ondo badator ez da inongo arazorik sortzen. Bestalde, badaude gaur egun ere umeak etxean edukitzea nahiago dutenak. Batzuk ez dute erresidentziara joan nahi izaten. Umea jaiotzen denean han, hainbeste argi eta mozturrotutako jendea ikusten ikaritzen ditu. Gainera oso hotza da, emaginak ez du lanik egiten, dena makinaren bidez egiten da. Ez da oso naturala. Aldizkari batean ikusi nuen behin emakume bat bere etxean erditzen, famili osoa eta

etxeko txakurra ere aurrean zeudelarik. Eta zergatik ez?”.

Abortatzearen ideia ez du asko atsegin. Lutxiren ustez, kontuak aurretik atera behar dira eta gaur egun dauden metodo guztiekin ez da zaila. “Nigana holako kontuekin etortzen zirenean, nik esaten nien, umeak jaiotzen laguntzeko ikasi nuela, ez hiltzen laguntzeko. Nik ez dakit nola egiten den aborto bat, gainera. Gaurai hartan intrusismo haundia zegoen, idearik ez zuen jendea ibiltzen zen lan hoietan eta min haundia egiten zuten”.

Hasiera batean, zenbait jendeak gaizki ikusten zuen bere praktikante lana. Zerbait morbosoa izango balitz bezala hartzen zuten. Baina Lutxik dioten bezala, gauzarik naturalenak dira, gorputzeko zatiak besterik ez baitira. «Behin mediku batek esan zidan: “Tu estaras de ver culos...!”; eta nik erantzun: “El culo y la cara son iguales!”». Jendeak ez omen du lotsarik prakak jeisteko, beldurra bai ordea: haurrak baino okerragoak helduak omen dira. “Behin andre bat ikusi nuen kalean bere semearekin. Umeak kasurik egiten ez zionez, amak esan zion: “Lutxi etorriko da zuri indizioa jartzera!” Ez zait ondo iruditzen, haurrari ez zaio beldurrik sartu behar. Nik esaten nien ez nentorrela minik ematera, baizik eta sendatzera. Umeek ulertu egiten dute. As-

kotan orratza ezkutatu, behatzekin ziztatzan niela esaten nien».

Dena den, orain ez dira hainbeste injekzio sartzen, jarabeak eta pastilak hartzen baitira gehienbat. Lutxiren ustez, lehen gehiegi sartzen ziren, baina berak ezin ezer esan, horiek medikuen gauzak dira eta. Gainontzean, istorio asko gogoratzen ditu emakume honek, baina bat bereziki. “Ordizian gizon bat hilik azaldu zen eta jendea ikaratuta zebilen. Behin, gaueko 3-rak aldera, tinbrejoka etorri zitzaidan gizon bat, Baliarraingo baserri batean parton zeudela esanez. Ni ikaraturata nengoen, baina ezin nion ezetz esan eta arropa azpian bisturi txiki bat izkutatatu nuen bazpare. Horrela abiatu ginen biak bizikletaz eta zubi batera ailatzean lehenbizi pasatzeko esan zidan. Orduan bisturie erakutsiz, bera aurrean joateko esan nion. Gero konturatu nintzen mutil ona zela baina...”. Parre egiten du Lutxik kontu hau gogoratzean. Jendea oso ondo portatu omen da berarekin. Aldi bakar bat gogoratzen du, gizon batek adarra jo nahian Laskaibarren partoan zeudela esan ziola, baina segituan antza eman zion gezurretan zebilela.

Hemen amaitzen dugu berriketaldia, baina ziur gaude, izango ditu Lutxik kontu interesgarri ugari.

Amaia Balerdi

UDAL BEASAIN EUSKALTEGIA
LOINAZKO S. MARTIN PLAZA
KULTUR ETXEA, 1.a
Tel. 889094

Euskalduntze, Alfabetatze eta E.G.A. ikastaroa 2, 3 eta 5 orduakoa. **Matrikulatzeko epea: Urtarrilaren 31ra arte.**

ARRANO Taberna

Ogitartekoak eta Pintxoak


Kale Nagusia, 12 Tel. 88 74 47 BEASAIN

GOIERRIKO BERTSOLARI ESKOLA

Euskal Herria euskara gabe, guztiontzat emazurtz da; eragin horrek bultzatua da hamar urtetako uzta.

ARGI BERRI Elkarte - Gipuzkoa k. 15 20240 ORDIZIA

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta Erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.
Telef. 88 05 43 BEASAIN

BANESTOKO KIDEEI LAGUNDUZ URTE ONA EGIN DU ITSASONDOARRAK

Aitor Garmendia: “Txirrinduan baizik ez dut pentsatzen”

Euskadin ezaguna den Aitor Garmendia txirrindularia Itsasondoko jaiotetxean, Ermentarin, bizi da. 24 urte dauzka eta txirrindularitzan beste 7-8 urte segitzea espero du. Hiru urte daramatza Baneston eta momentuz oso kontentu.



Masaiari, mekanikoa e.a. hemengoak dira, giro ona dute; zuzendariarekin berdin. Honek taldekide gazteengandik espero du Indurainen erreleboa iristea eta bere konfidantza izango duelakoan dago, orain arte bezala erantzunez gero. Auskalo. Orain, Induraini erreleboa hartzea, Tourra eta mundialak irabaztea, amets-tzat dauzka Aitorrek, errealista izaki. Gutxi al da, diogu guk, Tourra korritzea Indurain garaipenera aupan eramanez?

Gogo betekoa ez zuen eskola utzi eta bere aita zenari laguntzen hasi zen Ordi-ziako Goierri Gruak-en bulegari bezala. Egunero lanera bizikletan joan beharra sortu zion horrekiko grina. 16 urterekin, berandu samar hasiagatio, etapa batzu irabazi eta lehen postuetan zen beti. Jokin herrikidearen antzera? “Ez. Jokinek karrera guztiak oso erraz irabazi zituen eta gure garaian zailagoa zen, berdintsua-koak ginelako”.

Txirrindulari profesionalena aparteko mundua dela dio. Jende eta diru asko mogitzen dela; negozio bat delako mogi-tzen dela prentsa eta telebista...

GOIERRITARRA: Profesionale-tan “morroi” habil, zergatik?

AITOR GARMENDIA: Lehenbizi Delgadorekin, orain Migelekin; hori nor-mala da, horiek irabaziak ekartzen baiti-tuzte eta guk momentuz beraiei lagundu eta emandako aukerak aprobetxatzen

saiatu behar piskanaka. Zenbait etapetan horiek errodatzen doaz eta, lagundu beharrik ez duzunez, hor daukazu apro-betxatu beharreko aukera. Noski, askotan norbera ez dago une hoberenean...

G: Taldekide batek ihes egin du, hi indarrekin hago: zer egiten da?

A.G.: Tropela geldiarazi edo mozket-a batean sartu, beti ere laguna errespetatuz, kontutan izanik beste batean alderantziz gerta daitekeela.

G: Zer gertatzen da Banestorekin?

A.G.: 93an bukatzen da Banestoren kontratua eta Etxabarri-eta zai daude tal-deak jarraitzen duen ikusteko ala beste etxe batekin hasteko. Hiru urtekoa eta gero Banestoko gehienak bezala urtebe-teko kontratua daukat orain. Banestok ezezkoa ematen badu, taldekook beste ekipoetara sakabanatzeko aukera ere ba-dugu, ezta? Uzten bagaitu, nik uste bloke osoa, baina denak, beste firma batekin hasiko ginatekeela. Etxabarri-eta hortik bizi direla, Indurain dagoela, oso intere-satuak direla, nik ez dut uste arazorik egongo denik beste etxe bat bilatzeko.

G: Indurainen atzetik baino, hobeto ez beste nonbaitean taldeburu? Posi-bilitaterik bai?

A.G.: Hori erantzukizun haundia da, gauza bat da esatea taldeburu izan nahi duzula baina gero erantzun behar duzu,

lasterketak irabazi eta hori ez da batere erraza, hor huts egiten baduzu... Kasu honetan, Indurain hoberena da, baina hu-tsegiten hasten bada zer gertatuko da? Kazetariak eta guztiak gainera etorriko zaizkio. Horretarako ibili egin behar da. Ez dakit nola ibiliko naizen gerora, oso zaila dago orain buru izateko, korredore onak, maila altua dago. Karrera sonatue-tan lagunduz eta ondo ibiltzearekin kon-forme gu. Ikusi egin behar gorputzak zer ematen digun eta hobetzen garen.

G: Askotan badirudi laguntzaileok ez zaretela ari.

A.G.: Beno, jendeak Migel ikusten du telebistan, hura da onena. Lana nork egin duen, lasterketa nork kontrolatu duen besterik da. Ez da behar beste baloratzen gure lana, ez. Hori asumiturik daukagu, hark irabazteko guk egin behar dugula lan. Ez dago prolemarik.

G: Datorren urteari begira zer asmo dituzu, Tourra, Vuelta, Giroa, zer nahiago?

A.G.: Nere ilusiorik haundiena mun-duko karrerarik onena, Tourra, korritzea berriz eta aurten egindakoa hobetzea; ka-rarreraren bat edo beste irabazi, bira txikie-tan aurrean egon eta Espainiako itzulian lehiatzeko aukera. Tourra bakarrik korri-tzea arriskutsua da. Tourra korritzez ge-rotan, hoberena Giroa korritzea, segidan baitira eta errodatuak zoaz, prest. Vuel-

tatik Tourreko tarte luze egiten da eta nahiago dut Giroa korritu. Hori bai, Vuelta korritzea errazagoa da, maila txikiagoa baitago, aukera gehiago, beraz.

G: Gaur edo bihar, txirrindularitza utzitakoan, zer?

“Aparteko mundua da profesionalena”

A:G:: Bada, ez dakit, oraingoz bizikletan baizik ez dut pentsatzen, gero geroakoak. Nik uste zerbait izango dela. Kri-siak krisi, gutxi gorabehera munduak aurrera segitu beharko du, ezta?

Jose txo Iturrioz

Bi lerrotan

✖ Urtarrilak 9an aurkeztuko da Ordiziako pilotalekuan, puentin herrikoi saio batekin, “Pausogaizto Goierriko Mendizaleak”. Elkarre haur eskualdeko jendeari zuzendua dator, batez ere ekintza bereziak antolatze gogoarekin: lehiaketak, eskaladak, espedizioak... Antolatzaileak sei bat lagun dira (Erramun Irastorza eta Iñaki Calvo tartean: 166166 eta 883174 tfnoak.) eta hortik aurrera nahi dutenen guztientzat zabalik dago.

✖ 5 urte eta gero nazioarteko proba bat irabazi du Jokin Mujikak. Hain zuzen, Andoainen ospatutako Gipuzkoako Ziklokros txapelketa. Erregularra izatea espero duela aitortu du Jokinek.

✖ Ordizia KEko Amaia Andres beasaindarrek aidez aldatzea erabaki du eta Jerezeko Chapin taldeak fitxatu du datorren denboraldirako.

✖ Bere 25. urteurrena ospatu berri du Beasaingo BKL Klubak. CAF Balonmano bezala hasi zena eskubaloia eta

saskibaloian aritu da, herri horri hainbat garaipen emanez. La Sallen aritzen garai batean eta bere lerroetatik atera izan da jende onik. Kerejeta kasu.

✖ Beasaingo Polikiroldegia berritzen hasiak dira. Araudiari egokituriko ur-filtrazio ekipo bat izango du. Kirol materiale berria izango dute instalakuntzako gimnasioek.

✖ Diputazioaren “Eski Kanpaina 93” delakoaren barnean, 15 urtetatik 29 arterainoko gazteentzako irteerak eta iharduerak daude (eski alpinoa, egun bateko, asteburuko eta astebeteko iharduerak). Familientzako iraupen eskiko iharduerak badira asteburuko eta bai eta ere Ikastetxetarako soilik dauden eskaintzak ere, egun bateko, asteburuko eta astebeteko. Arette, Astun, Formigal, Pal (Andorra), Panticosa eta Candanchun eskeiniko dira iharduerok. Informazio gehiago Ordiziako Eskualdeko Kirol Bulegoan (889545 tfnoa.) eta Gazteen Informazio Bulegoan (166743).

ESKI-DENBORALDI BERRIRAKO PRESTA ZAITEZ BEASAINGO K2 KIROLDENDAN

ESKI-MOTA GUZTIETARAKO:
ALPETARRA, IRAUPENETAKO eta
ZEHARKALDIETAKO EGITEKO

ESKIAK: ATOMIC, DINAMIC, FISCHER, DYNASTAR, KARHU, ETC.

LOTURAK: SALOMON, ESS, ATOMIC, GEZE, EMERY, PETZL, SILVRETTA, ETC.

BOTAK: SALOMON, KOFLACH, DACHSTEIN, ETC.

ALPETARRERAKO TRESNAK

19.900 Pta-tik hasita

ZEHARKALDIETARAKO TRESNAK

13.900 Pta-tik hasita

IRAUPENERAKO TRESNAK

14.900 Pta-tik hasita

ETA BESTE HAINBAT OSAGARRI

ORDEZKO PIEZAK ETA KONPONKETAK



20200 BEASAIN

Tel.: 88 16 66
Zaldizurreta 3

BEIZAMAKO ILKETA (eta II)

(...)

Enteratu zanean Marroquin jauna, beraren anaia eta Martin sozio laguna etxera bialdu omen zituan, eta beste danak gela batean bildu. Orduan zerbait egin bear. Gure aitari bi pelota eta karta pare bat edo bi eramateko agindu zioten kartzelan gelditu ziran oiek, eta kazuela-jaten batzuk ere bai. Jatena prestatu eta eramateko eskatu ziotenean, gure etxean jana maneatu eta gure aita eta ama zanaren anaia, Bizente nere aitapuntekoa, zesto batean kazuelak artu bizkarran eta oiñez joaten ziran Azpeitira.

Urkitik atera eta Lizardi baserrietan, kartzelan zeuden bi famili oien atetetik pasatzen ziran. Seguru, aiek ere zerbait emango zioten etxeko familikoei eramateko. Bat nekatzen zanean besteak txanda egiñez zestoa eramaten zuten. Lizarditik Zategiko zelaira ateratzen ziran. Andik Gorosategi gertu zegoen. Zategitik bera, Iutza deitzen zioten puntu bat da. Mandubitik Azpeitira zijoan kamiñoan an sartzen ziran, Urrestillatik Nuarbe bitartean. Andik Azpeitira. Trenik eta kotxerik usatu gabe buelta egin zuten. Seguru ez dakit, baiña zortzi bat kilometro gutxienez egongo dira kamiñoak bakarrik. Dana oiñez pasatzen zuten.

Kartzelako atean kontu-saio bat beren aiekin eginda, urrengoan joaten ziran ziran ziran zitutzen eramandako kazuelak. Lenengo biajean zesto utsarekin etorri ziran bueltakoan. Urrangoetan, kazuela beteak eraman eta utsak ekarri. Esaten zuten, zeuzkaten diruak etzituztela bestek gastatu bear danak, eta al zuten ondoena janez egoten ziran. Bakarrik baiña argiago baintzat, bi famili alkarrengana bilduta. Beste illabete pare bat orrela egin zituzten.

Bitartean, alegin guzia ballarako jen-deak egiten zioten. Kartzelara joan ziran ziran, soroak garia ereiteko zeuzkaten. Ballarako etxe danetatik lagun bana eta ba-

tzuetatik bi joaten ziran. Soro guziak laiatu eta garia bota. Bertako ganaduekin arearekin nastu eta jarri zizkioten. Kartzelatik atera ziran ziran, gariak laister ebakitzeko moduan zeuzkaten. Ikusi zuten ondo ballaran maiteak zirala. Uste det auzoak pozik egiten zutela dana.

Sei illabete pasatu ziran ziran, Migel Jose eta bere seme zarrena, Jose Joakin, kartzelan utzi eta beste danak libratu zituzten. Orduan, aien berri etzekitenak: Kulpanteak or gelditu dituk esaten zuten. Penagarria zan, aiek ezagutzen zituanarentzat; eta an gelditu ziran ziran ziran, oraindik pena geiago. Beste bi illabetean egon ziran aita-semeak bakarrik. Baiña kontzientzia lasai zeukaten, eta noizbait irtengo ziran esperantza osoa. Bi illabete pasatu ziran ziran, bialdu zituzten biak etxera. Erri osoa zai zegoan, beraiei ongi etorria edo agurra egiteko; eta pentsatu zuten erri osoak bi famili oiei omenaldi bat eskeintzea, bazkari bat egiñez. Itsasondon badago oraindik Kalea izeneko taberna bat. An egin zuten bazkaria erriko danak, esateko; eta inguruko errietakoak, asko. Orduan taberna ori Jose Anjel Izuzkitza erriko sekretarioarena zan. Jose Anjel bera ere izan zuten kartzelara eramanda, deklarazioak egiten. Baiña bereala bialdu zuten. Bazkalondoan, danak elizaren ondoko pelota- lekuan argazki batzuk atera zituzten.

Poz aundia artu zuten, errian ain maiteak zirala ikusi zutenean. Gero, gastatu zituzten diruak pena ematen zioten. Itsasondora jeixten ziran ziran, gure etxean sartu gabe etziran joaten iru gizon zarrenak beintzat, andik pasatzen ziran eta. Migel Josek esaten zion aitari: Ni bizi naizela naiago nikek kulpantea azalduko balitz, gu giñala kulpanteak esaten zuten oiek jakin dezaten kulparik gabe ibili gerala. Bizente Mujikak, berriz, goiz batean gure etxean sartuta, ala esan zigun: Guk gastatu ditugun diruak! Baiña diruak! Esaten zuan, kartzelara joan

ziranetik etorri arte, ogeitasei milla erreal atera zirala aien etxetik. Gaur ez da asko; baiña orduan ogeitasei milla errealak, gaur milloita erdiak aiña balio zuten. Bazan pena artzeko aiña. Baiña deseo zutenik edo nai zutenik etzuten iritsi. Aiek il eta gero, krimena egin eta andik amazazpi urtera, konfesatu omen zuan kulpanteak, bera izan zala krimenak egin zituan.

Geroztik jakin nuan, krimena egin zuan aurreko egunean, bi ganadu erosi zituala tratolari batek Gorosagastin; eta ganaduak eraman baiña len ordaindu omen zituala baserrian bertan; eta ganaduak eraman eta gau artan bertan il zituala. Itxurak ziran ziran, egunez utzi zuan diruaren billa joana izango zan noski. Juezak etzuan jakingo aurreko egunean ganaduak andik atera ziran; edo etzuan jakin nai izandu. Bestela, bazuan zeri eldua. Kulparik gabeak ondo pagatu zuten. Kulpantea billatzen etzegoan ain zailla, itxurak diranez. Geroztik entzun det, ganaduak erosi eta arakiñei partitzen ibiltzen zala tratolari ori; eta gauean, arakiñarekin batera txekorraren gibela jan eta ondorenean, jokoan aritzen zirala. Etzuala ematen arek alako gauzarik egin bear zuan. Bere kezka eramango zuan barrenean. Azkenean damutu eta aitortu bazuan, danak balioko diote. Nik ez diot opa zoritxarrik. Orrela bukatu ziran orduko kontuak. Baiña penak eta naigabeak aurrera jarraitu zuten.

Beroztigeko errotan bere burua urkatu zuanak alaba txiki batekin utzi zuan emaztea; eta au gero, kartzelan egon zan Frantzisko bere koñaduarekin esposatu zan berriz. Frantzisko orrek Tolosan zuan zerraren parte, Arantzegitarak artu zioten; eta bere zerra, errota eta tabernarekin anaiaren lekuan segitu zuan Beroztigin. Neroni ibilli nintzan berarekin zerran lan egiñez urte pare bat. Ondo ezagutu nuan famili ura. Lenengo anaiaren alaba ori neska polita zegoan, ni an ibilli nintzanean. Nik ere begi-



ratzen nion, baiña beste bat egin zuan lagun. Urte batzuk pasatu genituan alkar ikusi gabe. Joan dan urtean, Arantzazun alkartu giñan. Berak ezagutu niñun. Ni ezin konturatu zein zan. Berrogei bat urte gertu izango ziran, lenago alkar ikusi genduala. Esan zidanean zein zan, besarkatu nuan pozik. Gero ikusi nuan bere senarra alboan zeukala, eta esan nion: Ori lenago ikusi banu, esango nizun zein ziñan. Senarra nerezako oso ezaguna zegoan. Gero, Arantzegitarak Tolosako lur ortan bi bizitzako etxe bat egin zuten. Lizardi baserria utzi eta Tolosara joan ziran danak bizitzera. Etxea utsik gelditu zan.

Ikaztegieta Benta-txiki baserritik joan zan famili bat maiztar Lizardira. Ikaztegieta base-ri orrek kamiñoa dauka atean. Nunbait aspertuta egongo ziran kamiñoarekin. Bost kilometro urrutiago jarri ziran Lizardin bizitzen, Murumendiko arkaitzaren ondoan. (...)Famili ori an bizi zala, beste bizitzako Bizenteren emaztea burutik nasten asi zan. Eta ikusi zutenean idea txarrak zeuzkala buruan, gauean ateak giltzaz itxita joaten omen ziran lotara. Baiña ura amets txarretan beti. Egun batean, ikulluan bastante altu zegoan leiotik aterata, alde egin omen zien. Etxe azpiko ollotokiaren gaiñera jetsi, andik lurrera salto egin eta norabait joan omen zan. Senarra konturatu zanean kuartoan etzeukala bere emaztea, asi omen zan danei deika. Etxean agiri etzanean, oartu omen ziran nundik atera zan. Orduan danak aren billa. Etxe inguruan ondo begiratu eta gero, erreka zeukaten etxearen kontra pasatzen zana, eta ganbarako leiotik bere burua aruntza bota ote zuan. Baiña arrastorik ez. Orduan beste bizitzakoei deitu omen zioten, eta danak alde banatara zabaldu omen ziran beraren billa. Beste bizitzako alaba gazteenak arkitu omen zuan etxetik kilometro erdi bat bidera.

Tolosara joan zan familiak zerra eta errota zeuzkaten; eta, aiek ibiltzeko ura izateagatik, Ordiziako erriak, Murumendi-

ko arkaitzaren barrenean dagoan manantial aundi bat erosi zion Migel Jose Arantzegiri; eta goragotik zetorren ura, kanal batean eramanda, deposito bat egin eta jarri zuten salto eder batekin. Nai zutenean zerra eta nai zutenean errota ibiltzen zuten. Beste bizitzako Maria Iztueta orri bururatu omen zitzaion ea depositu artara bere burua bota ote zuan eta joan omen zan bakarrik depositu artara. Kanalaren gaiñean, ganaduak ez pasatzeko, elorri-adar bat omen zeukaten jarrita. Bera pasatzeko, ura kendu eta berriz jarrita omen zeukan. Atzetik joan zanak ere ori bera egin omen zuan. Oso ondora iritsi baiña len ikusi omen zuan uraren gaiñean nola zegoan itota. Laister bueltatu omen zan

doan egon giñan zai. Angarilla batean ekarri zuten, eta ermitaren ondoan bizkarretik jetsi. Don Salbador apaizak, orduan gure etxean zegoanak, aitagure bat erreztatu, eta berriz lau lagunek bizkarrean artu eta errira eraman. Lenago bi kilometro bidean etorri ziran, eta beste iru kanposantura. Ez da bide motza izaten. Neroni tokatu zitzaidan bi neska gazte Lizarditik errira jeixtea. Bizkarrak ederki minberatzen zan, bide luzea eta txarra egoten zan eta.

Beraz, Gorosagastiko krimen orrek beste bi eriotz ekarri zituan ondorenean, beren pena eta naigabez. Orrela ixildu zan



Itsasondoko Lizardi-goiko Arantzegi eta Mujika familiakoak espetxetik askatutakoan jasotako omenaldiko argazkia.

“Kulparik gabeak ondo pagatu zuten”

abiso ematera bere familiari. Oraindik egun gutxi dira orduko gertakariak kontatu dizkidala, orain Irunen bizi dan Maria Iztueta berak.

Gogoratzen naiz. Nik amairu bat urte izango nituan. Santa Krutzko ermitaren on-

Gorosagastiko krimenaren kontua. Baiña gaur ere gogoan daukate, oraindik bizi diran iru senideak: Martin anaia, Luzia eta Maria. Aizpa gazteenarekin ia asteazken geienetan itzegiten det, Ordizian lora saltzen egoten da ta. Tolosako Flores Arregi-ko familiarekin esposatua dago; eta, Gorosagastiko kontua aitatzen degunean, laister berotzen da. Ez det uste arrazoiaren faltarik daukanik. Baiña oiek beintzat badakite zein zan kulpantea. Beren gurasoak ori jakin gabe bukatu ziran. Pena ori izan zuten.

Bixente Barandiaran
 (“Zartu gabe ezin bizi”-Auspoa)



Izaro Iraeta zaldibitarra ETBn

19 urte ditu, kazetaritzako 2. maila ari da ikasten eta bere aurpegia ezaguna ari da egiten ETBko "Ikimilikiliklip" saioan astero ateratzen den ezkerotik. ETBn aurkezte bat behar zutela irratian entzun zuen, bertara aurkeztu, hainbat froga gogor pasa eta lanerako aukeratu zuten. Karmarak ez dio beldurrik ematen eta grabatzean papel bat betetzen duenez naturaltasuna izatea egiten zaio zailena. Nahiko "saltsera" izat du bere burua eta momentuzdagoen lekuan oso gustora egon arren, gauza asko egitea gustatuko litzaioke. Honela deskribatzen digu bere eguneroko lana:

"Uff... 3-rak, tripa ongi bete eta gero jantzitegian zer utzi diguten ikustera goaz. Goizean elkartu gara denok, azken berrietaz hitzegin, zintzilik zer geratzen den ikusi eta gidoilarietara batera programari erreparatzea eman diogu. Jantzi ondoren makilari gelan, aurpegia koadro bat bailizan margotzen digute, transformazioa jadanik egin dago. Orain hasten dira eguneko ordurik gogorrenak, mikrofonoak frogatu, fokoak zehaztu, kamerak kokatu eta ondoren set-eka (dekoratutako toki ezberdinak) grabatzeari ekingo diogu, ea gaur zenbat aurkezpen ateratzen zaizkigun aurrenekoan, 1,2,3... Errejidorea kontatzen hasten da 5,4,3... 3. aurkezpenean goaz, 4 aurkezleak partearitzen dugubertan, hauek dira gehien kos-

tatzen zaizkigunak, bati testua ahazten zaio, besteari hark nola esan duen farregurea ematen dio, mikroaren pilak amaitu dira, kamera beranduegi pintxatu dute... 8rak, eskerrak, dagoeneko tripa-zorriekin nago, denak korrika jangelara, bokata jan, lehenik kolan egon ondoren eta lasterka, atsedendia 15 minututakoa bait da, makilaia erretokatzer. Berririo ekiten diogu lanari, oraingo honetan amaitu arte, hamarrak edo hamaikak. Gero erropak aldatu, desmakilatu eta etxera (beno, agian potetxoren bat lehenik), bihar Bilbora ikastera. Ez dut pentsatu ere egin nahi zenbat apunte eskuratu behar izango ditudan egunean jartzeko".




Karmele Goñi tolosarra, Zeraindik Bilbora.

Ezkondutako ezkerotik Bilbon bizi bada ere asteburuetan Zerainera etortzen da oraindik. Gaztetan ere Tolosatik etorrita Zeraingo amonaren baserrian pasatzen zituen udak. Zerain herri abertzalea zen oso, baita Karmeleren familia ere. Modu batean edo bestean aberriaren alde lan egin nahi zuen eta herri baten kultura aztertzea aberria egiteko modu bat zela berrehala ulertu zuen.

Batxilergoa bukatu orduko, Manolo Laborde osaba zuenak Aranzadiren batzar batera eraman zuen. "Sekretaria

izendatu ninduten, antropologia eta etnologia sailean, gerora On Joxemiel Barandiaranen idazkari ere izan nintzen" adierazi zion "Egunkaria"ko Alazne Iturrion. Garai haietan "nere vespa zaharrarekin hartu eta Ataunera joan, Donostira, Zeraina ibiltzen nintzen". Bilbora ezkondu ondoren ere etnografia lanetan jarraitu zuen ama egin arte. Ondoren ikastolen haseratan aritu zen gogor lanean, "ikas-tola ireki, ume bakoitza bere klasera eramane, garbiketarak egin, andereño bat gaitxotzen bazen bere lekua bete, kontuak eramane... egun oso-osoak eman genituen urte askotan Elkano ikastolan". 1978an hartu zuen Bilboko Museo Etnografikoaren zuzendari kargua eta hor darrai. Gutxi barru utzi nahi luke museoko lana, baina aurrera jarraituko du bere ikerkuntzetan. Etniker-eko kidea da eta Arantzadi izan omen du bere unibertsitatea.



Eleuterio Jauregi "Beloki", Zaldibiko trikiti-saltseroa.

Zaldibitarra dugu "Beloki" panderojolea, nahiz eta orain Hendaian bizi den. Zer ote dauka probatu gabe "Makalo" bezala ere askok ezagutzen duten gizon honek? "Todoterrenoa" izaki, erromeri, dantzaldi, afari-bertsoafari, trikiti-jaialdi... non ez da gustora aritzen Beloki berak daukan abildade horrekin panderoa astintzen? Eltze guztietako perejila, tron-



Elosegi, 13 • Tfnoa: 16 10 16
20210 LAZKAO

GURPIL BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51

20200 BEASAIN

boia eta bonbardinoa jotzen zituen garai batean txaranga, atabala eta txistua ere bai. Solfeo handirik gabe gainera, notak irakurtzen ikasi bazuen ere. "Profesionala ez izan arren, erromerietan beti izan naiz dantzari", aitortu zion "Egunkaria"rako Nekane Altunari.

Imuntzo soinu-jolearekin orain 3 urte osatu zuen bikotea. Herri Urrats, Araba Euskaraz, afari eta honelakoetan joaz, ondo pasatzea zen bere lehendabiziko asmoa. Bestalde, Elkarren diskoak Zabal-tzen ibiltzeak mundu honetan gehiago murgiltzen lagundu dio. "Imuntzoren-gandik jaso dudana laguntza ere handia izan da, bai erritmoa markatzeko garaian eta baita abesteko unean ere. Izan ere, bera musikoa da eta oso gusto onekoa gainera", dio. E.H.-an korrante musikala asko daudenez, beraien musika egokitu beharrean aurkitu dira eta denetik jotzen dute. "Guk egiten duguna zera da: hortik guri interesatzen zaiguna hartu. Lehengo trikitira mugatzen bazara bakarrik, berau baztertzeko ari zara. Trikitia gaur egun indartua irten bada, eman zaion berrikuntzagatik izan da, sormen handiko jendea bait dago. Gauza berriak egiteak ez du esan nahi zaharrak bartertzen direnik".

"Jo ezak!" diska da Imuntzo eta Belokiren artean duten bakarra, momentuz, aurtengo neguan beste diska bat grabatzekotan bait dira. Ikastetik inoiz bukatzen ez delakoan dago Eleuterio eta erromeria bat egiteko garaian karisma behar

delakoan. "Ez da trikitixa jotzea bakarrik. Jendearengana heltzeko elementu gehiago sartu behar dira. Hori da behar bada trikitilari gazteei falta zaiena".



Ezkioko Prudentzio Mujika, penduluarekin ur-bila

Sei urte inguru dira Ezkio-Itsason bizidun Prudentzio Mujikak lurpetik ura ateratzeko zaletasuna hartu zuela. Erradiala deitzen zaio zenbait erradiazio erakartzeko sentsibilitateari, "zahori"ek duten horri. Prudentziok daukan dohai hau berez ekarri duen zerbait da, ez du liburitik ikasi. Praktika da ikasbiderik onena. Mujikaren kasua da, ofizio asko jakin behar dira lan honetan ibiltzeko: "Honetan hasi aurretik tailer batean airtu nintzen eta eskerrak horri, lan klase guztiak ikasi nituen, baina batez ere mekanika da garrantzitsuena, eta zenbat eta irudimen handiagoa, are eta hobeto".

Lehendabizi ura ateratzeko makina prestatu zuen eta horrekin beste batzuk esandako tokitan zulatzen zuen, baina orduan ez zekien dohainik zuenik. Udal-langilea zen orduan eta auzorako ur bilatzaile etorriak erakutsi zion lehenbiziko pendulua. "Proba egiteko esan zidan, bazitekeela nik ere dohaia izatea, eta halaxe gertatu zen".

Pendulua oso tresna sinplea da: metalzko pieza txiki bat eta kate batez osatzen da. Pultsuan erabili behar da, eskutik zintzilika eukiz. Uraren arrastoa hartzen duenean mugitzen hasten da, bueltaka. Dohaia duenaren eskutan mugitzen da bakarrik, ordea. Prudentzioren eskutan, ur poltsa handiren baten arrastoa hartzen badu bueltaka hasten da eta ur korrantea baldin bada, berriz, alde hartara begira jartzen da. Hurrengo pausua, makinarekin zulaketan hastea. Bere sistema, zeharka zulatzea, ze goitik behera zulatuz gero, bonba jarri behar izaten da eta hori ez da merkea. "Gure inguru hauetan ur gehiegirik ez dago, gero eta gehiago behar izaten baita herrietan. Baserriak asetzeko adina badago ordea. Amezketa eta Bidania adibidez, urari dagokionez aberatsak diren herriak dira. Momentuz lana ez zaio falta Prudentziori. Bizkaian eta batez ere Goierrialde honetan aritzen da. Lanen kostua lurraren arabera dago, baina milioi erdi ingururen ordainetan ura aterako dizu.



ELOSEGI-ARACO
Ardotegiak

OLABERRIA-LAGUARDIA



Ofi-Gamar, c.b.
Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

ALUMINIOZKO METALISTERIA

OTATZA PLAZA, 1- BEHEA. • Tfnoa: 88 86 66 • ORDIZIA

BEROGAS

BEROGINTZA
ITURGINTZA

P. San Francisco, 10. TOLOSA
Tfno: 65 33 07 / 73



Sagardotegia

aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66

LEGORRETA (Guipúzcoa)

HIZKUNTZ ORDEZKAPENAREN NONDIK-NORAKOAK GOIERRIN

Ataun, Beasain,
Ezkio-Itsaso, Gabiria, Idiazabal,
Itsasondo, Ormaiztegui, Zaldibia, Zegama.



Erdararen sarrera gurera

“Hizkuntz ordezkapenaren nondik-norakoak Goierri”. Askoren artean: “Goiherriko Euskal Eskola” eta Gerriko argitaletxea.

Liburuskara honetan Goierriko 9 herritako hizkuntz egoera soziolinguistikoa aztertzen da. Penagarria herri guztiak hor ez egotea, Goierriko hizkuntz egoeraren ikuspegi oso-beteago bat irudikatzen du. Baina, nolabehere, dauden 9 herrietan, guk uste, nahikoa ondo azaltzen dute Goierri gaur egun topa ditzakegun herri-egoera soziolinguistikoen eredu nagusiak. Herri euskaldun euskaldunena lehenik; elebidunena bigarrenik, euskara gailen dela; eta erdaldunena hirugarrenik, euskara espazio pribatu-zokoetara mugaturik.

Liburuskara honen bidez batez ere helburu bat lortu nahi zen. Gero, egia esateko, helburu hori zabaldu egin da, eta 4 atal nagusitan barrena egituratzen da azterketaren haria. Helburu nagusi hori 2. atalari dagokio: “Hizkuntz ordezkapena nola eta zeren arabera gauzatu da?”. Zergatik da atal hau gure ustez guztietan inportanteena? Dikigunez, herri euskaldun gehienetan erdararen sarrunea ez da aspaldikoa, frankismoaren aroari dagokio, eta hainbatetan hizkuntz ordezkapenaren sarbide hori bizi izan duten informatzaile asko dago oraindik herri horietan. Pentsa dezagun, ordea, hemendik urte mordo batera, ordezkapen hori buruz-

ko tesi eta ikerketa lanak burutu nahi izango direla, eta herri euskaldun hauekiko ahalik eta informazio-datu xehetuena eskuratu nahi izango dela. Orduan seguraski posible izango ez dena, orain gure eskura dago; horra, beraz, erdararen sarbideaz lekuko zuzenen interpretazio eta azalpena, datuz eta xehetasunez jantzia. Alde honetatik begiratuta, lehengai soziolinguistikoko egokitzat joko nuke nik neuk liburuska hau.

Halere, esan dugun bezala, beste atalok ere jorratzen dira herrian herriko azterpidean: “Gaur egun zertan da euskararen erabilera?”; “Zer-nolako balorazio eta jarraiek agertzen dira?”; “Norantz bideratuko da zure herriko hizkuntz prozesua?”. Guzti honek, gerorako ez ezik, oraingorako ere balio du, oraingo euskaltzalearen jakinminak neurri batean asetzeko. Aztertzaileen artean baikortasunerako eta ezkortasunerako joera soma daiteke. Ezkortasunaren zantzuak herri koskor-handietan ageri dira: erdaldunduetan eta elebitasunaren lehian hizkuntz tentsioa isladatzen den haletan. Baina, bistan denez, herri txiki euskaldunak dira gehienak, eta horietan, aldeak alde, baikortasuna nagusitzen da euskararen etorkizunaz. Ez da, ordea, dirudienez, Goierriko herri euskaldunetako euskaldunen iritzia soilik, oraindik orain argitaratu berria den liburu batean irakurri ahal izan dugunez: “Paradogicamente, la imagen mas positiva es la que se manifiesta entre los jovenes vascoparlantes de zonas de dominio euskaldun” (Nacionalismo y lengua, Benjamin Tejerina).

Amaitu aurretik, egileei eskerrik sutsuenak eman nahi dizkiet euskararen aldeko lan militante honengatik. Hona, hurrenez hurren, euskaltzale horien zerrenda: Ataun, Joan Manuel Barandiaran eta Jexus Aizpuru; Beasain, Andoni Sarriegi; Ezkio-Itsaso, Antton Idiakez; Gabiria, Gabino Murua; Idiazabal, Maitane eta Xabier Urteaga, Aitor Goiburu, Eba Elortza, Lurdes Intxausti eta Edurne Albisu; Itsasondo, Lurdes Amundarain, Joxean Amundarain; Ormaiztegui, Julen, Garbiñe eta Elisabet Ezkurdi; Zaldibia, Belen Azketa eta Belen Irastortza; Zegama, Joxean Ormazabal.

Joxe Manuel Odriozola



“Xirrixta”: haurren pozerako

Aurtengo “Argia” sariek “Kili-kili” zoriandu berria duten honetan, gaur egungo Euskal Herriko haurren beste bi aldizkari ere etorri zaizkigu gogora: “Ipurbeltz” eta aurtengoa jaio den “Xirrixta” aldizkaria. “Xirrixta”ren estreinako albistea Herri Urrats jaiaren inguruan izan genuen. Orduan O alea kaleratu zuten eta dagoeneko beste bi ale ere baditugu kalean: urrikoa eta azarokoa. Orain artekoa ikusita, esan behar dago oso aldizkari txukuna eta erakargarria egin dutela 4 urtetik gorako umeentzat.

Aldizkari berri hau Frantziako Tolosan egiten den batean oinarritzen da, baina hala eta guztiz ere badago euskaraz propio sortutako gauzentzako tokirik: bertsoak, poemak... Eta zerbait polita badu, euskaraz aparte, zabalpena du, izan ere E.H.-ko bazter guztietara zabaltzen baita. Bestalde, egile eta kolaboratzaileei (Bidasoaren bi aldeetakoak) begiratu besterik ez dago aldizkaria garantizaturik datorrela ikusteko: Txomin Heguy, Koldo Amestoy ipuin kontalaria eta Daniel Landart besteak beste.

Beraz, datorren urterako zuen haurrei poz berri bat eskaini nahi izanez gero, badakizue “Xirrixta” aldizkarira jo dezakezuela. Urte osoko harpidetza 4000 pezeta-tan ateratzen da eta helbidea honakoxea dugu: Euskal Kultur Erakundea (Lota-B.P.6) 64480 Uztaritze (Lapurdi), ez zaizue damutuko.

Patxi Zubizarreta

Bodegon GOIERRI JATETXEA

Kale Nagusia, 20 Tel. 88 00 00 BEASAIN

KATTALIN


ERRETEGIA - SAGARDOTEGIA

*Sagardoa
txotxetik*

Antzizar Auzoa, 4, “Biona” etxea. (Polideportibondoan) TEL. 88 92 52 BEASAIN

II. BEASAIN IDAZ-LEHIAKETA 1991

Saritutako Idazlanak



"II. Beasain Idaz-Lehiaketa 91". OHO eta Ertainak, saritutako idazlanak. Ainhoa Galparsoro, Maider Sarriegi, Eba Etxeberría, Naroa Goikoetxea, Arantxa Arizmendi, Leire Goikoetxea, Maider Redondo, Aitor Arratibel, e.a.


Zertarako balio du abentura miragarriak kontatzen dituen ipuin batek, Euskal Herriak nortasuna ukatuta, gero eta pobregoa jarraitzen badu? Zertarako dugu euskal hitz eder eta esaera jatorren zerrenda, hizkuntza egun egun ahulago ikusten baldin badugu? Ez du erantzun errazik. Ez dago esaterik haur eta gazteek ipuinak idatzita ezer konpontzen denik. Baina oraindik bizi gara, badugu arnasa, eta bizirik dagoen herriak, arnasa bezain beharrezkoa du ametsa.

Literatura ez da izango gure gaitzen botika miragarria, baina XXI. mendean ere euskaldun izaten jarraitu nahi dugula erakusten du. Lan eta jolas, euskaraz egin nahi duen herria garelá. Hemengo idazlanak idatzi dituzten haur eta gazteak gizon-ema-kume izango dira bihar. Bakarren bat idazle trebe eta ezaguna izan daiteke, nik uste. Beste askok ez du gehiago idatziko, baina nahi nuke horiek ere, atzera begiratu eta harro egotea euskaraz bizitzeko ametsa gauzatzen lagundu zutelako eta, batez ere, ahalegin horretan segitzen dutelako.

Gurea, zuena, hondar ale bat izan daiteke euskalgintzan, eta beste ale asko behar dira,

Euskal Herri eta Goierri euskaldunaren iragana eta geroa lotuko dituen zubia eraikitzeko. Baina Xabier Letek bere poema zati ezagun batean esan zuen bezala: "Gu sortu ginen enbor beretik/ sortuko dira besteak/ burruka hortan iraungo duten/ zuhaitz ar-daxka gazteak".

Xabier Mendiguren



"Matias Ploff-en erabakiak".
Erein. Patxi Zubizarreta.

Baliteke Zubizarretak idatzitako ipuin hau autobiografikoa izatea, edo autobiografikotik askotxo izatea. Eta hala ez bada, OHOk bere ikaskideren bati gertatua izana liburukoa. Izan ere, pertsonaia batzuk benetan izen eta guzti azaltzen dira. Ni ere azaltzen naiz, neurri batean behintzat. Ni ere igota nago "Altzagarateraino" gimnasiako ordua n. Ni ez nintzen bide-erdian izkutatzen, baina ez da urruti bizi GOIERRITARRAren egoitza hori egiten zuena. Eta zerbait egin behar zen. Ze estuasunak pasatzen zituzten ume potoloek ditxozko gimnasi orduetan! Gimnasiako orduak eta hortik kanpoko otorduak ezin ondo eramán. Eta ez ziren eramaten errazak "Kimikoaren bedeinkapenak", batez ere arrazoirik gabe jotzen zuenean.

Baina beti zegoen, beti egoten da, ikas-kideen lepotik aurrera atera nahi duen norbait. Baina Matias Ploff abila da horrelako jendilajeari adarra jotzen. Esan bezala, goierritar askoren eskola-garaia azaltzen dira ipuinean. Lan txukuna egin du P. Zubizarretak. Euskararen aldetik, berri, bere errazean hizkera landua darabil. Modis-moetan nabari da hori batez ere.

Azkenik aitatu, ipuin honek iazko Lizardi Saria irabazi zuela, eta GOIERRITARRAren aurreko zenbakian aho-bero eta sasi-jakintsu batek gogor kritikatu zuen "Balaka"ko lagunei eskainia dagoela. Marrazkiak Antton Olariaganak dira.

Jon Zabalegi.



"Maripertxenta". Elkar.
Joxean Ormazabal. 1988

Hamar sorgin elkarrekin bizi dira. Zaharrenak Sorginputz du izena eta gazteenak Maripertxenta. Sorginen taldetik ihes egin eta, abentura batzuren ondoren, Lizarribar izeneko herrira iristen da Maripertxenta. Han ezagutuko ditu Lierni, honen osaba Plorentiño, Dionixio itsua... Gauz ikastolan sartu eta astapikuak utziko dizkio andereñoari bere mahai gainean. Baina ez pentsatu Maripertxenta sorgin gaizto horietakoa denik. Hori bai, oso politik eta interesgarriak dira Lizarribarren gertatzen zaizkion abenturak. Eta azkenean... Baina hori liburua irakurritakoan jakingo duzue.

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 BEASAIN

Goierriko hiru pasadizo

(Alfontso Maria Zabala -Ezkio, 1847/Hernani, 1919-)

-Hauxe da lantegia egiten diguna hon-
tzak- esaten zion behin batean Zegamako
sakristauak bertako erretore jaunari.

-Zer gertatzen duk, ba?

-Zer gertatzen den? Gauero-gauero jaix-
ten da hontza bobedatik, edaten du olioia eta
dago eliza ilun eta argirik gabe Sakramentu
santua ere.

-Kuxidadea duk horixe ere. Esan diat
lehen ere mila bider, tiroz botatzeko hontza
deadru hori, baina hire tema dela mediante,
zeukagu gehienetan Sakramentua argirik
gabe, eta oliotan bakarrik, berriz, bankarro-
ta eragingo diok elizari. Gaur gauean, bada,
egon hadi elizan arma hartuta bai, eta hontza
datorrenean, tiroz bota ezak.

Esan eta egin. Badago gure sakristaua,
badator hontza gauerd aldera eta jartzen da
lanpara gainean; orduan, kaskabela baino
pozikago, jasotzen du katuak arma, baina
ontzarekin batera hartzen du apunterian al-
dare nagusian zegoen gurutzea ere. Ez zion
tiratu nahi inondik inora gurutzeari eta has-
ten zaio korutik eskuekin keinu eginez eta
esanez:

-Txit, txit!: Alde egin beza, alde egin be-
za!

Baina kasurik ere ez zion egiten gurutze
santuak eta, hontzak ihes egin ez ziezaion,
tiratzen du eta tiroaren hotsarekin ikaratu-
rik, badihoa hontza bere zulora eta Santo
Kristoak jotzen du lurra. Joan zen sakristau
inozoa zer gertatu ote zen, eta Jesus krutzi-
fikatua mila txiki eginik ikusi zuenean, esan
omen zion begietatik negarra zeriola:

Nere Jesukristo Jauna,
zeuk ere kulpak badituzu,
gizona koleran ikusiz gero,
zertako alde egin ez duzu?

* * *

Beasain aldean burdin bideak egiten ari
zirela, langile bat, Andaluziako semea, ge-
zurti haundia, beti omen zegoen lagun
artean bere herriko haunditasunak esaten: bi
librako pikuak, zazpi librako laranjak eta
honela. Egun batean, beste langile batek,
Orioko semeak, esan omen zion:

-Neronek ere ikusi dut, ba, hementxe,
Gipuzkuan, zuk zeure herrian ikusi ez du-
zun bezalako gauza bat.

-Zer zen bera?

-Esango dizut berehalaxe. Nire auzoko
gizon bati galdu zitzaion behi gorri bat, eta
irten ginen adiskide batzuk behi haren bila.
Orioko mendi batean genbiltzala bi lagun,
ikusi genuen Izarraitz mendi gainean gauza
gorri-gorri bat. "Zer duk hau?", esan genion
elkarri.

"Bera izango duk" esanda, bagoaz lau
legoa bide eta gehiagoan Izarraitz mendi-
raino; eta igarotzean, zer uste duzu bilatu
genuela? Hobeki esanda, zer zela uste duzu
Oriotik ikusi genuen gauza gorri hura?

-Behia?

-Ez, jauna, ez. Marrubia.

* * *

Hil zen gizon bat etxe batean, eta haren
emaztea negarrez urtzen zegoen, senar izan
zenaren gela ondoan. Auzoetako emaku-
meak hasi zitzaizkion hitz onak esaten
alargunari, haren nahigabe zorrotza zerbait
arintzeagatik.

-Pazientzia hartu beharko duzu, Main-
toni, pazientzia- esaten zion batek.

Eta erantzun zuen:

-Bai pozik, berak nahiko balu.

Aldameneko etxe batean bizi zen mutil
galant bat Pazientzia izenekoa.

"Horrela bizi bagina beti" (Euskal
umorearen antologia, Anjel Lertxundi)

ITZALAK



URBITARTE SAGARDOTEGIA

- Kostilla eta txuletetan espezialdua
- Enkarguak Ordiziako Eroskiko Tabernan.



Tfnoa: 88 83 31

ERGOIENA AUZOA. Tfnoa: 88 27 19 • ATAUN



Gudarien Etorbidea, 4
Tel. 888511

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)

Terreno gehiegi

Luei gezurrak irudituko zaizkizue nire kontuak, industri aro beltz honetan ezinezkoak bait dirudite honelako kasuek. Baina egia hutsa da dena. Ama zenak kontatu zidan eta gure ama zenak nekez esango zizun gezurrik.

Gaur ez bezalako estimazioa zuten garai batean maiorazkoek. Ez da idazle eta bertolaririk izango maiorazko eta baserriko bizitzaz idatzi edo bertsoak paratu ez diuenik. Bai, maiorazkoa edo primua oso elementu inportantea izan da euskal basetxean: baserriaren eta bertako familiaren eutsaga ezinbestekoa. Primutza Euskal Herrian instituzio bat dela esanda ere ez genuke oker handirik egingo: baserri ba-koitzeko seme zaharrenez osaturiko instituzioa.

Bartzelonako Euxebio ere titulu horren jabe zen (Bartzelona eta Ainegik, gaurre-gun biak desagertuta badaude ere, elkarren ondoan zeuden Zaldibiko bi baserri izan behar zuten). Euxebio zen Bartzelonari segimena emango ziona. Baserriko lanak "findutako" gizasemea badakigu nolakoa

izaten den: atzapar sendoak, matrail hezur sartuak eta sudur-gako dezentekoa zen Euxebio. Hogeitamar urtetan bueltaturik zegoen eta kezka horren beltzunea nabaria zen gurasoen begi bihotzetan.

--Inaxi, Bartzelonako habeon azkena bertantxe ikusten det; gu gastatzean, laster joko ditu pipiak--, esaten zion Pellok emazteari, Euxebiok artean ezkontzeko konturik ez zeukala gogoratzean.

--Tira, gizona! Oraindik ez dauka garai galdurik. Ahaztu al zaizu zerorri zenbatekin ezkundu zinen?--, erantzun zion Inaxik senarrari. Pello ere ez baitzen oso goiz-oilaskoa izana.

Kontuak kontu, handik edo hemendik inguratu diote, horratik, Euxebiori andre-gaia: Adunako Zabale baserriko Maria.

Elkarren informea eta behar zirenak jaso ondoren, Tolosan biltzen dira astelehen arratsalde. Han erabakitzen dute Bartzelona bisitatzea joateko, neskaren doteaz hitzegiteko eta mutilaren tokamenduak ezagutzeko eguna. Inaxi eta Pello beldur ziren, harri pila eta otadi eta guzti sei hek-

tareatara iristen ez zen baserri eskas hura ikusita, neskaren aldekoek atzera egingo ez ote zuten.

--Gure ondasunei gutxi erizten ez badiete!--, bota zuen Pellok.

--Ainegiko soroak eta denak erakutsiko bageniezkier zer?--, erantzun zion Inaxik.

--Hori esan gainera!--, erantsi zuen Pellok.

Esan eta egin! Etorri da Adunako "gor-tea" bere segizioarekin. Errezibimendu bero baten ondoren, hor erakusten dizkiote Ainegiko soro, baso eta belardiak berene-kin batera. Neskak, aurrenetik, zirkinik ere egin gabe entzun zituen esplikazio guztiak. Baina halako batean nekatzen hasten da. Eta, denak ahobete hortzekin utzirik, mutilari bertan ematen dio despedida.

Ongi bizitzeko lur sail handitxoak direla alegatzen die, aitona zenaren esakuna go-goan baitzeukan artean: "hobe den etxe txikian etxeokandre, handian neskame baino!"

Rufino Iraola

BASAPIZTIAK

TXINPANTZEA KANGURUA
ELEFANTEA ERRINOZEROA
GAZELA BUFALOA
ZEBRA



T O R T U A N T E R K
B X Z E R A G A Z A R
U N I B O L E H O E O
F U E N T E B I A T K
A Z U L P Z E B R N O
L E H O I A P S I A D
O A U R U G N A K F R
A E L E F A N T O E U
P I Z T I B A S Z L L
U R T X O R I A L E U
E R R I N O Z E R O A
B A S A O I H A T X O

GURUTZEGRAMA ZURIA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1															
2															
3															
4															
5															
6															
7															
8															
9															
10															

EZKERESKUIN: 1.- Hizkuntzaritzako adituak. 2.- Arautegi. Ekar arazi. 3.- Hamargarren hilabetea. Miatu. Potasioaren sinbolo kimikoa. 4.- Interjekzioa. Boroaren sinbolo kimikoa. Haran. Joaki da. 5.- Bokala. Argona. Saldu aditzaren infinitiboa. Arabiako. 6.- Kateaz lotua. Bat. Bokak bikoitza. Lehen bokala. 7.- Egunoroko agerkaria. Zuhaitz mota. 8.- Infusioa. Artsenikoaren sinbolo kimikoa. Bozateko biztanlea. Bigarren pertsona. 9.- Ez eme. Atunetan ari diren arrantzaleak. 10.- Atzizkia. United Nations. Nahastura trinko. Ibai haran.

GOITIK BEHERA: 1.- Aukeraketak. 2.- Barre. Agertu. 3.- Bizkaieraz, itxia. Nitrogenoaren sinbolo kimikoa. 4.- Akuria. Noren atzizkia. Bokala. 5.- Urtaro bero. Jo. 6.- Lehen pertsona. Elkartasun. 7.- Tona. Nor singularrean. Eremu. Kontsonantea. 8.- Zer gauzari. Aiar. 9.- Euskal herrialdea. Iparraldeko talde politikoa. 10.- Aleen neurri zahar. Duda adierazteko partikula. 11.- Landare mota. Euskal erakunde armatua. 12.- Norat atzizkia. Bazaude. 13.- Imajinak. Iridioaren sinbolo kimikoa. 14.- Jainko egyptiarra. Joan aditzaren erroa. Gaueko argi. 15.- Katilu txikia. Ukapen.



Giro on eta jatorra

Tlf.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

ALTZAGARATE JATETXEA

- Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaiak, e.a. ospatzeko
- Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Telefonora.

ALTZAGA.




IRVROK S. L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54
OLABERRIA

TAPIZ ETA GAINETADURA
TAILERRA

B i O K , c . b .



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

ATERPE TABERNA

kultur erakusketak
egiten dira

Tfnoa: 88 46 66

BEASAIN



ZABALE

OKINDEGIA
DIETETIKA

Santa Maria, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

MUJIK A AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi
tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km
Tfna: 88 74 00 / 88 74 04
Fax: 88 79 52 BEASAIN



TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,..
Tfnoa: 88 89 53 ARAMA



Jatetxea

Gudarien Etorbidea - Tel. 883960
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Errezetak

Legatz solomoa

Osagarriak: (6 lagunentzat): 2 kg. legatz; kokotxak kg. 1; 600 gr. almeja edo txirlak; perejila, olio, baratxuriak, gatz.

Olio ugari jartzen da, baratxuri xehetuekin; baratxuriak egiten hasten direnean, legatz-solomuak gehitzen zaizkio. Baita kokotxak ere. Irakinaldi bat eman eta apartatu. Olioak kendu eta lurrezko kazola mogitzen hasi, loditu arte; piskanaka olio gehitzen zaio, maonesa bati bezala; perexila eranstean zaio eta labean sartu 10 bat minutuz, egin arte. Perola batean irekitzen dira txirlak eta legatzaren gainean jartzen. Gatzaren proba egin eta zerbitzatu.

Krema Pastelera

Osagarriak: litro bat esne; zortzi arraultz gorringo; 100 gr. hirin; kanela-txotx bat.

Esnea ipini egosten bere kanelarekin eta guzti. Arraultz gorringoak eta azukrea nahastu. Hirina bota ondoren. Dena nahastu eta esnea egosten denean krema egina izango da. Hozten utzi azkenik.



Gateaux Basque (Euskal Tarta)

Osagarriak: kg. 1 azukre; kg.-erdia gurin; 2 kg. hirin; 16 arrault oso; 4 zuringo; 50 gr. legami.

Arraultzak azukrearekin jartzen dira; gurina gehitzen zaio eta hirina ere bai, legamiarekin. Dena bat eginik dagoenean hozgailura sartu gogortzeko asmoz. Erabat gogorturik dagoenean zabal-zabal jarri. Molde desmontagarri bat osatu batekin (sagar tartaren gisa), eta krema pastelerarekin geruza (kapa) bat zabaldu (zm. pare batekoa) eta beste diskoarekin estali. Hor duzu benetazko Euskal Tarta!

Pastelero

Aholkuak

Edergintza naturala

Jaboirik gabeko txanpua ile-horrientzat

- 2 limoiren zukuarekin, 2 arraultzekin eta labanda-ur 2 kutxarakadaxoren nahasketa egin. Masaia bat eman buruazalean eta txima-zustarretan. Aklaratu eta operazio berbera egin berriro, 10-15 minututan ilean utziz txanpua. Bukatzeko, ondo aklaratu urarekin.

Ile-beltzaranentzat

- 2 kutxarakada ozpin, arraultz pareta eta arrosa-ur 2 kutxarakadaxo nahastu. Aurrekoaren berdina egin kasu honetan ere.

Ile errebeldea bere onera

- Burua garbitu lehenik. Arraultz batekin ondo nahastu 6 kutxarakada iogur natural. 4 minutuz masaia bat eman eta 10-15 minutuz estali burua toaila bero batekin. Ur epelarekin aklaratu.

Zahiarentzako lozioa

- Arazo izaten jarraitzen du kas-pak, telebistako iragarkietan legez. Asunekin egiten da infusio kontzentratu bat eta sagardo-ozpin kikara-erdi bat gehitu. Buruazalean eman masai bat goizez eta beste bat gauez.



Ilezuriak ilundu

- Ilea zuritu (urdiru) zaizula? Jarri itzazu 2 kutxarakada tabako beltz 20 kutxarakada uretan borborka egosten orduerdiz. Zuzenean eman eta berriz ere eman zaiozu ileari kolore egokia lortu arte.

Kaxkabeltx



Zumalakarregi, 1
Tfnoa: 88 79 63
ORDIZIA

Buruazaleko tratamenduetan azken teknologia:

- Laser
- Kiromasaia
- Digitopuntura
- Bibraterapia,
- e.a.



Neurriko bizikleten salmenta konponketa eta montajea

Urdaneta 56 • 16 11 97 tfnoa • **ORDIZIA**



OLABERRIA

HIPERMERKATUA

■ **BEREHALA ZABALIK** ■

ORDUTEGIA, 10etatik 22etara
ASTELEHENETIK LARUNBATERA